

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

14368 *34/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 17koa, Enpresa-kaudimena eta energiaren sektorea laguntzeko, eta zerga-arloko premiazko neurriena.*

I

COVID-19ak eragindako osasun-krisiak erabat aldatu du munduko ekonomiaren egoera. Urrunze fisikoko neurriak eta mugikortasun-murrizketak beharrezkoak eta eraginkorrek dira birusaren hedapena kontrolatzeko, baina inpaktu handia dute ekoizpen-jardueretan, eta, haiek direla tarteko, asko urritu dira enpresen eta autonomoen diru-sarrerak. Horren ondorioz, langile autonomoen eta enpresen likidezia-premiak gehitu dira, eta beharizanok Espainiako Gobernuak haien eskura ipinitako abal-lineen bidez ase dira batik bat. Nazioarteko zenbait organismoren iritziz, abal-linea horiek Europar Batasuneko arrakastatsuenetakoak izan dira.

Izan ere, krisia hasi denetik, lehenbizi, enpresen eta autonomoen likidezia-arazoak konpontzeko neurriak ezarri dira, eta, oraintsuago, haien inbertsioen inguruko erabakiak sustatzeko neurriak (inbertsioetarako abalen linea berria) eta haien kaudimena sustatzeko neurriak (Enpresa Estrategikoen Kaudimenari Laguntzeko Funtsa sortu da). Errege lege-dekretu honen bidez, enpresen kaudimenaren aldeko sustapena indartu nahi da, krisiaren ondorioek luze joko dutela ikusirik, eta, horretarako, finantzen arloko eta konkurtsoen arloko zenbait neurri ezartzen dira.

Lehen batean, abalak emateko epealdia 2020ko abenduaren 31n amaitzekoa zen, Europar Batasuneko estatu-laguntzei buruzko araudian ezartzen denarekin bat etorriz. Hala ere, Estatu Laguntzen Aldi Baterako Esparruaren laugarren zuzenketan, Europar Batasunak esparru horren babespean eskuragarri jarritako abalak erabiltzeko epealdia 2021eko ekainaren 30era arte luzatu da. Pandemiaren bilakaeraren eraginez, berriz ere alarma-egoera ezarri behar izan da (2020az gero luzatuko da) eta jarduerak murrizteko neurriak ezarri behar izan dira, bai Espainian, bai Europako beste herrialde batzuetan, eta, horren guztiaren ondorioz, enpresek salbuespenezko egoera honetan erabakiak hartzen jarraitu beharko dute. Egoera honetan, zentzuzkoa da Espainiako erregulazioa epealdi berrira egokitzea. Beraz, errege lege-dekretu honetan ezartzen da 2021eko ekainaren 30era arte eman ahalko direla abal publikoak autonomoen eta enpresen likidezia-beharrizaneiei aurre egiteko; horretarako, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 29. artikuluan ezartzen dena eta uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan ezartzen dena aldatzen da.

Gainera, likidezia eta kaudimena sustatzeko neurriak indartu eta haien irismena zabaltzeko nahian, errege lege-dekretu honetan ezartzen da abalak Errenta Finkoko Merkatu Alternatiboko (MARF) ordaindukoei aplikatu ahalko zaizkiela. Gauza bera ezartzen du apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuak martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan arautzen den abal-lineari buruz. Modu horretan, bankuek eman ohi dituzten finantzabideak ez ezik kapital-merkatuetakoak ere mantentzea bultzatzen da. Kasu honetan, aurrekoetan bezala, abalen baldintzak Ministro Kontseiluaren erabaki bidez ezarriko dira.

Beste alde batetik, enpresek eta autonomoek finantzabideak errazago eskuratu ditzaten eta likidezia dela-eta sortzen diren tirabirek kaudimen-arazorik ekar ez dezaten, errege lege-dekretu honen bidez ezartzen denaren arabera, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren itzalpean emandako abal publiko bati esker mailegua hartu duten zordunek maileguaren mugaeguna atzeratzeko eskatu ahalko dute, eta maileguarekin batera abal publikoaren indarraldia ere luzatuko da. Horrela, finantza-entitateek gehienez hiru urtez luzatu beharko dute abalaturako maileguen gehieneko epealdia, zordunek baldintza jakin batzuk betetzen badituzte eta eskabidea aurkezten

badute. Aurrerantzean linea horretako abalei esker ematen diren maileguen gehieneko epealdia ere 8 urtera luzatuko da; horretarako bete beharreko baldintzak Ministro Kontseiluak ezarriko ditu erabaki baten bidez. Uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako 40.000 milioi euroko linearen esparruan ematen diren abalen iraunaldia 8 urtekoa izan daiteke gehienez.

Gainera, errege lege-dekretu honetan ezartzen diren hautapen-baldintzak betetzen dituzten bezeroen abalaturako maileguen printzipalaren ordainketaren gabealdia 12 hilabetez luzatu ahal da; beraz, kasu horietan, gabealdia 24 hilabetekoa izango da, gehienez. Neurri hori martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren itzalpean emandako abala duten maileguei zein uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera emandako abala dutenei aplikatuko zaie.

Azkenik, ezartzen da finantza-entitateek 2021eko ekainaren 30era arte mantendu behar dituztela hautapen-baldintza guztiak betetzen dituzten eta, horrez gain, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren edo uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren itzalpean emandako abala duen maileguaren titular diren bezeroen zirkulatuzaile-lineen mugak.

Luzapenak ekarriko dituen kostuak ahalik txikiak izan daitezen, errege lege-dekretu honen bidez notariotzako eta erregistroko arantzelak murrizten dira egoera honetan: kasuan kasuko eragiketen nobazioaren edo haiek geroratze, inskribatze edo publiko bihurtze edo kontu-hartzearen ondorio denean arantzelak ordaindu beharra.

Azkenik, errege lege-dekretu honek ezartzen du Kreditu Ofizialeko Institutuak zuzenean eskatu ahal da diola informazioa Espainiako Bankuaren Arriskuen Informaziorako Zentralari, COVID-19aren ondoriozko abal-lineekin lotutako maileguak ematen dituzten finantza-entitateek zentral horri jakinarazten dizkieten ordaindugabeak egiaztatzeko izapideak azkartzeko.

Beste alde batetik, ETEek errazago izan dezaten kapitala eskuratzea, beharrezkotzat jotzen da zenbait neurri ezartzea, finantzaketa alternatiboko merkatuak sustatzeko, batez ere zabaltzen ari diren ETEen merkatuak, bankuetakoak ez beste finantzabide batzuk erabiltzeko aukera eduki dezaten.

Horretarako, Balioen Merkatuari buruzko Legearen testu bategina aldatzen da (urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua). Aldaketa horren arabera, igo egiten da enpresek beren akzioak zabaltzen ari den ETEen merkatu batean gabe araupeko merkatu batean negoziatzeko eskatu beharra eragiten duen kapitalizazio-atalasea. Uste dugu igoera horrek zabaltzen ari diren ETEen merkatuen sakontasuna eta likidezia bultzatuko dituela eta, horren ondorioz, merkatu horiek erakargarriagoak izango direla; hartara, enpresa horiek baliabide gehiago edukiko dituzte eskura eta finantzabide gehiago edukiko dituzte aukeran.

Gainera, COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz, baliteke Espainiako enpresa askok diru-sarrera gutxiago edukitzea eta, horren eraginez, kaudimenik eza adierazten duten baldintzak betetzea aldi batez, ezohiko egoerak irauten duen artean, eta hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskatu beharra dakarren inguruabarretako batean egotea. Baldintza horiek modu orokorrean aplikatuko balira egungo ezohiko eta aldi baterako egoeran —zeina ez baita enpresen ondare-egoeraren isla—, baliteke jarduera ekonomikoa etetea eta horrek eragin kaltegarria edukitzea finantza-egonkortasunean.

Hori guztia kontuan harturik, zenbait neurri onartu behar izan ziren Justizia Administrazioaren esparruan: lehenbizi, 16/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen (16/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 28koa, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena), eta, gero, Parlamentuko izapideak egin ondoren, haren bidez ezarritako neurriak 3/2020 Legeak berretsi zituen (3/2020 Legea, irailaren 18koa, Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalena eta antolaketa-neurriena).

Arau horien bidez ezarri ziren neurriak funtsezkoak izan dira prozesuetarako eta enpresak eta, oro har, ekonomia babesteko. Konkurtsoei eta sozietateei dagokienez hartu diren neurriek esker lortu da merkatuko inguruabar orokorretan (jarduneko balioa likidazio-balioa baino handiagoa denean) bideragarriak izan litezkeen enpresei ez aplikatzea

konkurtsuaren deklarazioa, eta ez ekitea enpresa horiek likidatzeko faseari. Horrela, kate-erreakzioa egotea eragotzi da, hau da, lortu da ekonomia ez gelditzea, likidezia ez murriztea eta ekoizpen-ehuna eta lanpostuak ez suntsitzea. Laburbilduz, neurri horiez baliatzen diren enpresek beren zorra birfinantzatu edo berregituratu ahalko dute, likidezia lortu ahalko dute eta beren ondare garbiaren urripena konpentsatu eta, pandemiak ekarri duen ezohiko egoera amaitzen denean, berriz ere ondare-oreka lortu ahalko dute. Horri guztiari esker, sistema ekonomikoaren iraupena eta kaudimena sendotuko dira eta finantzak egonkortuko dira.

Errege lege-dekretu honen bidez, irailaren 18ko 3/2020 Legeak ezarritako neurrietako batzuk luzatzen dira, beharrezkotzat jotzen baitira honako helburu hau lortzeko: COVID-19aren pandemiaren ondoriozko ezohiko larrialdiaren eraginez arazo ekonomikoak dauzkaten enpresek, profesionalak eta langile autonomoek beren jardura ekonomikoari eustea, baita krisiaren aurretik beren betebeharrak —ekonomikoak zein hitzarmen baten, ordainketa-akordio estrajudizial baten edo birfinantzaketa-akordio baten ondoriozkoak— zorrotz bete izan dituztenek ere. Horrenbestez, batetik, 2021eko martxoaren 14ra arte luzatzen da hartzekodunen konkurtsua deklaratzeko eskabidea aurkezteko eginbeharraren etenaldia, bai eta hartzekodunek nahitaezko konkurtsua deklaratzeko aurkezten dituzten eskabideak epaileek izapidetzeko onartu beharra ere.

Bestetik, hitzarmen baten, ordainketa-akordio estrajudizial baten edo birfinantzaketa-akordio baten ez-betetzearen deklarazioa izapidetzeko ez onartzeko neurrien indarraldia luzatzen da, baldintza modura ezarrita beste akordio edo hitzarmen bat negoziatzea. Araubide hori egon da indarrean urriaren 31ra arte aurkeztu diren ez-betetzea deklaratzeko eskabideetarako, eta ordura arte bezala aplikatuko da. Errege lege-dekretu honek ezartzen du araubide hori 2020ko urriaren 31tik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartean aurkezten diren ez-betetzea deklaratzeko eskabideei ere aplikatu dakiekeela.

Badaude kontuan izan beharreko beste neurri batzuk ere, hain zuzen ere martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak, V. kapituluko 40. eta 41. artikuluetan arautzen dituen aparteko neurriak: administrazio- eta gobernu-organoen jardunari buruzko eta zuzenbide pribatuko pertsona juridikoen batzar nagusietarako deialdiei buruzko aparteko neurriak eta 2020ko ekitaldian kotizatu duten sozietate anonimoei buruzko aparteko neurriak.

Aparteko neurri horietako batzuk 463/2020 Errege Dekretuak deklaritzen duen alarma-egoerarekin edo haren luzapenekin lotuta zeuden (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duena), edo, bestela, beren indarraldia 2020ko abenduaren 31n amaitzen zen.

Gure ordenamendu juridikoan zuzenbide pribatuko zenbait motatako pertsona juridikoak daudenez, horren inguruko erregulazioa martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren bi manutan arautu behar izan zen, 40. eta 41. artikuluetan: 41. artikuluan, sozietate anonimo kotizatuen araubide berezia ezarri zen, eta, 40. artikuluan, zuzenbide pribatuko gainerako pertsona juridikoen araubidea.

Azaldu den bezala, COVID-19ak ekarri duen osasun-krisia gaur egun nola dagoen ikusirik, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera berria deklaratu duela aintzat hartuta (Diputatuen Kongresuak 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatu du; irismena, nolana ere, ez da joan den martxoan deklaratu zen alarma-egoerarena bezalakoa) eta zenbait autonomia-erkidegotan eta Europako beste herrialde batzuetan hartu dituzten erabakiei erreparatuta, ezinbestekoa da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak ezarritako aparteko neurrietako batzuen indarraldia luzatzea.

Hain zuzen ere, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean arautzen diren kapital-sozietateak eta zuzenbide pribatuko gainerako pertsona juridikoak (sozietate zibilek, sozietate kooperatiboak eta elkarteak) ezin izan badituzte aldatu beren estatutuak batzar nagusia edo kideen edo bazkideen biltzarra bitarteko telematikoak erabiliz egiteko, aukera eman behar zaie bitarteko horiek erabiltzen jarraitzeko 2021eko ekitaldian, horrela batzar edo biltzarretara joan ezin diren kide edo bazkideen eskubideak bermatuko dira eta. Bere

hartan mantentzen da idazkariak bazkide edo kideen nortasuna egiaztatu eta aktan adierazi beharra; gainera, sozietate anonimo kotizatuen kasuan, batzar nagusia lurralde nazionalako zeinahi tokitan egin ahalko da, orain arte bezala. Halaber, eta azaldutako arrazoi berengatik, 2021. urtera arte luzatzen da fundazioen patronatuen bilerak bitarteko telematikoak erabiliz egiteko aukera.

Beste alde batetik, gure ekonomiaren sektore estrategikoak COVID-19ak ekarri duen krisi globalaren eraginetik babestu behar dira. Horregatik, 19/2003 Legea aldatzen da (19/2003 Legea, uztailaren 4koa, Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzkoa); artikulua bat gehitzen zaio, 7 bis artikulua, Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsio jakin batzuk liberalizatzeko araubidea eteteari buruzkoa. COVID-19ak ekarri duen egoerak bere hartan segitzen duenez, errege lege-dekretu honen xedapen iragankor bakarrak aldi baterako araubide bat ezartzen du; horren arabera, atzerriko zuzeneko inbertsio jakin batzuk liberalizatzeko araubidearen etendura (7 bis artikulua 2. eta 5. apartatueta arautzen duena) 2021eko ekainaren 30era arte hauei ere aplikatuko zaie: Espainian kotizatzen duten enpresetan Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetako egoiliarrek egiten dituzten atzerriko zuzeneko inbertsioei, bai eta Espainian kotizatzen ez duten enpresetan egiten dituzten atzerriko zuzeneko inbertsioei ere, baldin eta inbertsioaren balioa 500 milioi eurotik gorakoa bada. Horri dagokionez, hauek dira Espainian kotizatzen duten sozietateak: akzio guztiak edo batzuk Espainiako bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta dauzkaten sozietateak, baldin eta egoitza Espainian badute.

Aldi baterako araubide horren ondorioetarako, Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsioetat hartuko dira inbertitzaileari Espainiako sozietate baten kapital sozialaren % 10eko partaidetza edo hortik gorakoa ematen dioten inbertsioak, bai eta sozietate-eragiketaren edo egintza edo negozio juridikoaren ondorioz inbertitzaileari sozietatea kontrolatzeko aukera ematen diotenak ere (sozietate baten kontrola zer den Lehia Defendatzeko 15/2007 Legeak zehazten du 7.2 artikuluan), izan Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko herrialdeetako egoiliarrek egiten dituztenak, izan Espainiako egoiliarrek egiten dituztenak, inbertsioen titularrak Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko herrialdeetako egoiliarrek direla. Titulartasun erreala hori dagoela ulertuko da azken horiek, zuzenean edo zeharka, inbertitzailearen kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiago daukatenean edo kontrolatzen dutenean, edo beste bitarteko batzuen bidez inbertitzailea kontrolpean daukatenean, zuzenean nahiz zeharka.

Gainera, azken xedapenetako laugarrenean, 19/2003 Legea aldatzen da (19/2003 Legea, uztailaren 4koa, Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzkoa), 7 bis artikulua, hain zuzen ere, prozedura-kontu batzuk doitzeko, Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsioak liberalizatzeko araubidearen etendura zer sektoreri aplikatzen zaien argiago definitzeko.

Beste alde batetik, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartzen duen Balore Merkatuaren Legearen testu bategineko 28. artikulua 1. apartatuko a) letra aldatzen da, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere egitekoetan jarraitu ahal izatea bermatzeko. Hain zuzen ere, ezartzen da ezen, agintaldia amaitutakoan, Batzordeko buruak, buruordeak eta berezkoak ez diren kideek beren egitekoetan jarraitu ahalko dutela hurrengo agintaldikoak izendatu arte.

Azkenik, Euroa indarrean jartzeko 46/1998 Legeak 25. artikuluan ezartzen duenaren arabera, 2002ko uztailaren 1etik aurrera, Espainiako Bankuak ez bestek trukatu dituzten pezeta-billeteak eta -txanponak euro-billete eta -txanponekin, lege horren 11. artikuluan xedatzen denarekin bat etorri biribildu ondoren.

Horrez gainera, Espainiako Bankuan pezeta-billeteak eta -txanponak euroekin trukatzeko epealdia 2020ko abenduaren 31n amaituko da. Egun horren ostean, ezingo da pezeta-billete edo -txanponik euro-billete eta -txanponekin trukatu.

Espainian euro-billeteak eta -txanponak aspaldi zabaldu baziren ere, oraindik herritar askok euroekin trukatu gabeko pezeta-billeteak eta -txanponak daukate.

Pandemiaren hedapenak eta gaixotasunaren kutsadura eragozteko eta murrizteko ezinbesteko neurriek erabat mugatu diete herritar askori pezeta-billeteak eta -txanponak trukatzeko aukera, ezin izan baitira joan Espainiako Bankura.

Gaur egun, oraindik ere ez dago batere argi nondik joko duen pandemiak eta mugikortasun-murrizketak garaiz arinduko diren, eta, beraz, ez da ziurra herritarrek aurtengo abenduaren 31rako egin ahal izatea pezetak trukatzeko eragiketak.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da pezetak trukatzeko aldia beste sei hilabetez luzatzea eta herritarrek 2021eko ekainaren 30era arte trukatu ahal izatea pezeta-billeteak eta -txanponak Espainiako Bankuan.

II

Errege lege-dekretu honen bidez, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira (EB) 2019/692 Zuzentarauak legerian ezartzen dituen aldaketa batzuk —(EB) 2019/692 Zuzentzaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2019ko apirilaren 17koa, Gas Naturalaren Barne Merkaturako Arau Erkideei buruzko 2009/73/EE Zuzentzaraua aldatzen duena—; aldaketen xedea da gainditzea Batasunaren barruan gas naturalaren merkaturak erabat gauzatzeko eragozpenak, zeinak Batasunaren arauak Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideei eta gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideei ezin aplikatu izateak sortzen baititu.

Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean zenbait berrikuntza sartzen dira. Batetik, prozedura bat ezartzen da Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak gaikuntza eduki dezan Zuzentzarauaren 49 bis artikuluan arautzen den salbuespena aplikatzeko, interesdunak hala eskatzen badu, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa garraiatzen duten gasbideetarako (2019ko maiatzaren 24a baino lehen amaituak); salbuespen horren arabera, gasbide horiek ez dute bete beharko garraio-jardueren jabetza eta gas naturala ekoizteko eta merkaturatzeko jardueren jabetza bereizita egon beharra, ez eta beren instalazioetarako araupeko eta diskriminaziorik gabeko sarbideaz ezarritakoa ere.

Beste alde batetik, bermatu nahi da Zuzentzaraua indarrean jarri zenean eraikita zeuden eta, horrez gain, Europar Batasunetik kanpoko herrialdeekin konektatuta dauden gasbideen titularrek aukera eduki dezatela gasbideen kudeatzaile independentearen figura aurreikusten duen eredia ezartzeko.

Azkenik, prozedura bat ezartzen da Batasuneko estatuek (Espainiako Erresumak, gure kasuan) beste herrialde batzuekin gas naturala garraiatzeko sareen inguruan negoziatzeko, Europako Batzordeak gainbegiratuta.

Beste alde batetik, 2009/73/EE Zuzentzarauaren 49 bis artikulua dela bide, aldi baterako salbuespena ezartzen da gasbide hauetarako: Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa garraiatzen duten gasbideak, 2019ko maiatzaren 23a baino lehen amaituak eta Batasunaren barruko sareko lehen konexio-puntua Espainian dutenak. Salbuespen horren arabera, aipatutako gasbideek ez dute bete beharko, hamalau hilabeteen, garraio-jardueren eta merkaturatze-jardueren jabetza bereizita egon beharra, ez eta Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak instalazioetarako araupeko sarbideaz ezartzen duena ere. Gainera, salbuespen luzeagoa ezarri nahi izanez gero, urriaren 7ko 34/1998 Legeak 71 bis artikuluan ezartzen duen mekanismoa aplikatu beharko da.

Halaber, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteetan sortzen diren diru-sarrereren transferentzien gehieneko muga handitzen da, eta honela gelditzen da: guztira bildutakoaren % 90, mila milioi euro gehienez. Horrez gainera, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteetan sortzen diren eta klima-aldaketari aurre egitea helburu duten transferentzien gehieneko muga gehitzen da, eta honela handitzen da: guztira bildutakoaren % 10, ehun milioi euro gehienez.

COVID-19aren krisiak elektrizitatearen eskarian eta prezioetan sortu dituen ondorioen eraginez, beherakada gertatu da sistema elektrikoaren araupeko diru-sarreretan. Izan ere, pandemiaren ondorioz, gutxitu egin dira bai bidesarien diru-sarrerak, zeinak zuzeneko proportzioan baitaude kontratatutako potentziarekin eta kontsumitutako energiarekin, bai Jasangarritasun Energetikorako Neurri Fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legeak

sortutako zergen diru-sarrerak, zeinak kontsumitu eta sortutako elektrizitatearen kopuruaren eta energiaren merkatuko balioaren arabera baitira.

Esku artean dauzkagun araupeko diru-sarreraren eta kostuen zenbatespenak kontuan hartuta, neurriak ezarri behar dira, hartara minimizatzeko 2020ko ekitaldiko aldi baterako desbideratzeak, bai likidazioa aplikatzen zaien subjektuen likidezari eragiten diotenak, bai ekitaldi honen itxieran gerta litezkeen aldi baterako desdoikuntzak, berez ekarriko luketenak bidesariak eta karguak gehitzea, 24/2013 Legeak 19. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa).

Inguruabar horiek guztiak kontuan edukita, handitu egin behar da berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteetan sortzen diren diru-sarreraren transferentzien gehieneko muga.

Horrez gainera, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteetan sortzen diren eta klima-aldaketari aurre egitea helburu duten diru-sarreraren transferentzien gehieneko muga handitzea honela justifikatzen da: sozialki bidezkoa den trantsizio ekologikorako agenda beteko badugu, azkar murriztu behar dugu eragin eta arriskuen aurreko zaurgarritasuna, bai eta isuriak ere. Klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren legearen proiektuan, 2050. urtea baino lehen klima-neutraltasunera iristeko konpromisoa ezartzen da. Eraldaketa handiak gertatuko dira sektore guztietan, eta, aldi berean, modernizatzeko aukera handiak sortuko dira. Gainera, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean ezartzen denaz gainera, inbertsioak egin behar ditugu herrialde seguruagoa eta zaurgarritasun txikiagokoa eraikitzeko, eta, horretarako, gure erantzuteko gaitasuna hobetuko duten neurriak sustatu behar ditugu.

Lehentasuna eman behar zaie arriskuak txikitzeaz gainera berotegi-efektuko gasen isuriak murrizten dituzten ekintzei, hots, klima-aldaketaren bi eremu horietan onuragarriak izango diren neurri integralki. Gainera, nahitaez bultzatu behar dira elektrizitate-sorkuntzaren sektorea eta industria deskarbonizatzeko potentzial handia duten teknologia berritzaileak ezagutarazteko proiektu adierazgarriak, horiek erabateko eta goitik behar diren eraldaketa ekarriko dute eta. Hori guztia bat dator Europako Itun Berdearekin.

III

Zergen arloko neurriei dagokienez, sozietateen gaineko zergan, film luze zinematografikoen edo ikus-entzunezko lanen atzerriko ekoizpenetan egiten diren inbertsioengatik aplika daitekeen kenkaria Europako Batzordeak lan zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen sektoreko beste ekoizpen batzuetarako estatu-laguntzei buruz emandako komunikaziora egokitzen da. Horren ildotik, ekoizpen-fasea txertatzen da, animazio-lanetarako pizgarria aplikatzeko; pizgarri hori mantendu egiten da nazioarteko ekoizpenetako lan batzuetarako, hain zuzen ere Espainian efektu bisualekin lotuta egiten diren lanetarako, baldin eta kenkariaren zenbatekoa ez bada Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak ezartzen duena baino handiagoa (erregelamendu horretan arautzen da nola aplikatu behar zaizkien Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei).

Beste alde batetik, amortizatzeko askatasuna COVID-19aren egungo agerraldian ekonomia suspertzeko asmoz ezarri diren laguntzen aldi baterako esparru nazionalera egokitzen da (esparru horren azken aldaketa 2020ko urrian egin da). Amortizatzeko askatasun hori 27/2014 Legearen hamaseigarren xedapen gehigarrian (27/2014 Legea, azaroaren 27koa, Sozietateen gaineko Zergarena) sartu zen 23/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako laugarrenaren bidez (23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira). Horrenbestez, pizgarria xedapen horretan aipatzen diren ibilgetu materialeko elementu berrietako inbertsioei aplikatuko zaie, 2020ko apirilaren 2tik 2021eko ekainaren 30era bitartean amaitzen diren zergaldietan egin eta abian jartzen direnei, hain zuzen ere.

Gainera, sozietateen gaineko zergan automobilgintza-industriaren balio-kateko berrikuntza-prozesuengatik aplika daitekeen kenkariaren gehikuntza 651/2014 (EB) Erregelamendua egokitzen da [651/2014 (EB) Erregelamendua,

Batzordearena, 2014ko ekainaren 17koa, zeinaren bidez adierazten baita laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz]. Hain zuzen ere, erregelamendu horrek exijitzen dituen bereizkuntzak txertatzen dira: pizgarria modu batekoa izango da enpresa txiki eta ertaintzat, eta beste modu batekoa bestelako enpresentzat.

Sozietateen gaineko zergari eragiten dioten hiru kasuetan justifikatuta dago errege lege-dekretuaren figura juridikoa erabiltzeko exijitzen den aparteko eta presako beharrizana, ezinbestekoa baita aldatzen diren manuak haietan aipatzen den Batasuneko araudira egokitzea. Hain zuzen ere, aipatutako aldaketak —film luze zinematografikoen edo ikus-entzunezko lanen atzerriko ekoizpenei dagokiena eta automobilgintza-industriaren balio-kateko berrikuntza-prozesuengatik aplika daitekeen kenkariari dagokiona— (EB) 2015/1589 Erregelamenduarekin bat zerga-pizgarriak Europako Batzordeari jakinarazteko prozedurek eragin dituzte [(EB) 2015/1589 Erregelamendua, Kontseiluarena, 2015eko uztailaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 108. artikulua aplikatzeko arau zehatzak ezartzen dituen].

Beste alde batetik, 2021eko apirilaren 30era arte, balio erantsiaren gaineko zergaren tasa % 0 izango da entitate publikoak, irabazteko asmorik gabeko entitateak eta ospitaleak hartzaile dituzten COVID-19ari aurre egiteko osasun-materialen Batasunaren barruko entregatze, inportazio eta erosketetan. 2020ko urriaren 31ra arte, tasa horren aplikazioa 15/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen zuen 8. artikuluan (15/2020 Errege Lege Dekretua, apirilaren 21ekoa, Ekonomiaren eta Enpleguaren aldeko Premiazko Neurri Osagarriena) eta 28/2020 Errege Lege Dekretuak zazpigarren xedapen gehigarrian (28/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 22koa, Urrutiko Lanarena). Horrenbestez, % 0ko tasaren aplikazioaren indarraldia luzatzen da, bermatzeko osasun-sistema erantzuteko gauza izango dela pandemia kontrolatzeko bigarren fasean, normaltasun berria hasi ondoren.

Eranskineko zerrendan 2020ko azaroaren 1etik aurrera neurri hori aplikatuko zaien ondasunak azaltzen dira.

Hori dela eta, behar den kasuetan, subjektu pasiboek errege lege-dekretu hau indarrean ipini aurretik jasanarazitako edo ordaindutako balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoak zuzenduko dituzte, zergari buruzko araudiarekin bat etorritz.

Aurrekoaren osagarri, Batasunaren barruko erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entregatze, inportazio eta erosketei aplikatzen zaien BEZaren zerga-tasa % 21etik % 4ra murrizten da aldi baterako, kontuan izanda herritar guztiek erabili behar dituztela pandemiaren iraupen luzearen ondorioz; nolana ere, murrizketa hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da hartzaileak lehen aipatutakoak ez beste batzuk izatea. Neurri horretan ere errege lege-dekretuaren figura juridikoa erabiltzeko eskatzen den aparteko eta presako beharrizana gertatzen da, berehala ezarri beharrekotzat jotzen da eta.

Horrez gainera, 19/1994 Legean ezartzen diren denbora-erreferentziak aldatzen dira (19/1994 Legea, uztailaren 6koa, Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzekoa), 2014-2020ko aldirako eskualde-helburuko laguntzen gidalerroen luzapenak eragiten baitie, honako hauekin bat etorritz: Batzordearen 2020ko uztailaren 8ko Komunikazioa; 651/2014 (EB) Erregelamendua eta (EB) 2020/972 Erregelamendua [(EB) 2020/972 Erregelamendua, Batzordearena, 2020ko uztailaren 2koa, bi erregelamendu hauek aldatzen dituen: 1407/2013 (EB) Erregelamendua, luzapenari dagokionez, eta 651/2014 (EB) Erregelamendua, luzapenari eta beharrezko doikuntzei dagokienez].

Neurri horren aparteko eta presako beharrizana justifikatuta dago; izan ere, aldatzen diren manuak bidez ezarritako denbora-aurreikuspenen indarraldia 2020ko abenduaren 31n amaituko denez, ezinbestekoa da Batasunaren xedapenetara egokitzea, eraginkorrak izango badira.

Beste alde batetik, osasun-krisiaren ondorioz, Gizarte Segurantzak finantza-beharrizan handiak dauzka bere babes-lanarekin jarraitzeko, kotizazioen bidez diru gutxiago biltzen ari baita krisiak jarduera ekonomikoan daukan eragin kaltegarriagatik. Gainera, aurrekontuen luzapenak areagotu baino ez ditu egiten beharrizan horiek.

Beharrian horiei aurre egin nahian, Gobernuak 19/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen (19/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 26koa, COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituena nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan). Errege lege-dekretu horren 10.3 artikulua araberara, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioak aparteko kreditua ematen du, 14.002.593.690 eurokoa, 19.02.000X.429.06 aurrekontu-aplikazioan («Gizarte Segurantzaren kontuetan COVID-19ak izandako eragina orekatzeko transferentzia»).

Hala ere, pandemiaren bilakaerak Gizarte Segurantzaren daukan ondorio txarrak asko luzatzen ari direnez, ezinbestekoa da baimena ematea beste kreditu gehigarri baterako, COVID-19ak Gizarte Segurantzaren kontuetan daukan eragina orekatzeko: 6.000.000.000 euro.

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 55.1 artikuluan xedatzen duenaren araberara, Estatuaren aurrekontuaren kargura gasturen bat egin behar denean eta ezin denean itxaron hurrengo ekitaldira arte, kreditu nahikorik ez badago eta ezin bada gehitu, eta 51. artikuluan arautzen diren gainerako figurez baliatuz ezin bada zuzkitu, kreditu-gehigarria izapidetu behar da.

Ezinezkoa zen alde aurretik jakitea nolako ondorio ekonomikoak edukiko zituen pandemiak Gizarte Segurantzaren sisteman, eta orain ezinbestekoa da ahalik azkarren kreditu handiagoa eskura jartzea; horregatik, kreditu-gehigarria onartzen da, prestazioak garaiz eta behar bezala ordaintzeko. Horrela, Gizarte Segurantzaren finantzak orekatzea lortuko da.

Halaber, osasun-krisia dela eta hartu behar izan diren neurri batzuen ondorioz, diru gehiago gastatu behar izan da langabeziako prestazioetan eta sorospenetan. Neurri horietako bat izan da jarduera aldi baterako doitzeko mekanismoak malgutzea kaleratzeak eragozteko (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa) eta beste bat sorospen berriak ezartzea Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezian dauden pertsonentzat edo alarma-egoeraren indarraldian aldi baterako lan-kontratua amaitu zaien pertsonentzat (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa).

Gainera, 2020. urtearen hasieran, 2018ko aurrekontuen luzapena zegoen indarrean, eta, ondorioz, urteko gastu-aurreikuspenak hasierako zuzkidurak (2018koak) baino handiagoak ziren.

Horregatik guztiagatik, 2020ko ekainaren 8an, Ogasun Ministerioak aurrekontu-gehikuntza onartu zuen, ordaindutakoaren araberako prestazioen gastua finantzatzeko kreditua gehitzeko: 14.151.918.381,20 euro. Gehikuntza hori Estatuako Enplegu Zerbitzu Publikoaren diruzaintzako gerakin atxiki gabearen kargura finantzatzeko da.

Nolanahi ere, pandemiaren ondorioek luzaro iraungo dutela ohartuta, Gobernuak onartu zuen 2020ko urriaren 1etik 2021eko urtarrilaren 31ra arte luzatzea kaleratzeak eragozte aldera jarduera aldi baterako doitzeko mekanismoak malgutzeko neurria (30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurriena). Hori dela tarteko, lehen aipatutako aldaketan zenbatetsitako kopurua baino gehiago gastatuko da langabezia-prestazioetan. Beste alde batetik, pandemiaren bilakaeraren ondorioz, gehiago gastatu behar da langabezia-sorospenetan, hasieran uste baino askoz gehiago, batez ere kontuan hartuta gastu horiei aurre egiteko kredituak 2018ko aurrekontu luzatuan ezarritakoak direla.

Langabeziako prestazioen eta sorospenen gastuak finantzatzeko kredituak zabalgarriak dira, hala ezartzen baitu 6/2018 Legeak (6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena) 11. Bat artikuluan eta II. eranskineko bigarren puntuko bederatzigarren zenbakian; 2018rako aurrekontu horiek 2020ra arte luzatu ziren.

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 54. artikuluan ezartzen duenaren araberara, organismo autonomoen aurrekontuetako kreditu-gehikuntzak honetara finantzatu daitezke: aurreko ekitaldiaren amaierako aurrekontuan aplikatu ez den diruzaintzako gerakinaren kargura, hasieran aurreikusi gabeko diru-sarrera gehigarrien bitartez, edo, bestela, aurrekontu ez finantzarioko beste kreditu batzuei baja emanez.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak, guztira, 4.525.505.609,12 euro finantzatu behar ditu. Ez dago horretarako erabil daitekeen diruzaintzako gerakin atxiki gaberik, eta ezin zaie eman baja beste kreditu batzuei beharrezkotzat jotzen diren 2.300.000.000 euroak finantzatzeko.

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 54. artikuluan ezartzen duenaren arabera, organismoaren aurrekontua aldatzeko proposatzen den finantzaketarako Estatuko gastuen aurrekontua aldatu behar bada, Estatuaren aurrekontuen aldaketarako aplikatu beharreko prozedura aplikatuko da bi aldaketetarako. Kasu honetan, 2.300.000.000 euroak finantzatzeko, aparteko kreditua izapidetu behar da Estatuaren aurrekontuan, eta kreditu horretan Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren zuzkidura egokia ezarri behar da Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa finantzatzeko, 2020ko aurrekontuetan (2018ko aurrekontu luzatuak) ez dagoelako xede hori daukan aplikaziorik.

Aurreko eragiketa horren ondorioz, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren diru-sarreraren aurrekontuari 2.300.000.000 euro gehituko zaizkio.

Aparteko kredituaren bidez estaltzen diren gastuak Administrazioaren obligazioak dira; hala ere, obligazio horiek ezin dira finantzatu Aurrekontua Gauzatzeko Kontingentzia Funttsaren kargura, haien zenbatekoa dela kausa. Beraz, ez dago zertan bete Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 50.1 eta 55.1 artikuluetan xedatzen duena, eta aparteko kreditua zor publikoaren bidez finantzatuko da Estatuaren aurrekontuan.

Aurrekontuen azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrak 55. artikuluan xedatzen duenaren arabera, Estatuaren aurrekontuaren kargura gasturen bat egin behar denean eta ezin denean itxaron hurrengo ekitaldira arte, kreditu egokirik ez badago eta ezin bada zuzkitu 51. artikuluan arautzen diren gainerako figurez baliatuz, aparteko kreditua izapidetu behar da.

Ezinezkoa zen alde zuzenetik jakitea nolakoak izango ziren ondorio ekonomikoak, eta orain ezinbestekoa da ahalik azkarren kreditu handiagoa eskura jartzea; horregatik, aparteko kreditua onartzen da, prestazioak garaiz eta behar bezala ordaintzeko.

Administrazioak nahitaez erantzun behar dio obligazioen ordaintetari, eta ordainteketa ez da atzeratu behar, hirugarrenei kalterik ez egiteko. Ezohiko eta premiazko arrazoiak dira horiek, errege lege-dekretu bidez kreditu-gehigarriak ematea justifikatzen dutenak.

Azkenik, errege lege-dekretu honetan manu bat ezartzen da 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako zenbait manuren aplikazioa luzatzeko, 2020ko urtarrilaren 1etik indarrean egon den kredituen luzapena bat etor dadin aurrekontuko 36 ataleko 21 zerbitzuko 942M programako 468 kontzeptuko kreditua 2020. urtean erabili ahal izateko ezinbestekoa den arauaren luzapenarekin.

IV

Konstituzioaren 86. artikuluan arabera, Gobernuak lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrezkoak» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarrizko erakundeen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, tresna zilegia da, baina, horretarako, Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro exijitu duen bezala (6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria; 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria; 68/2007 epaia, 10. oinarria, eta 137/2011 epaia, 7. oinarria), presako legegintza justifikatzen duen xedea egoera jakin batean laguntzea izan behar da, Gobernuaren helburuen barruan laguntzea betiere, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik araudia berehala eman behar den egoera batean —esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioarako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan—, eta errege lege-dekretua are tresna zilegiagoa da prozedura hori zehaztea Gobernuaren esku ez dagoenean.

Beraz, ziurtatuta geratu behar da badela «ezinbesteko lotura bat zehaztutako presako egoeraren eta egoera hori konpontzen laguntzeko neurri zehatzaren artean (Konstituzio

Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. OJ, eta 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 4. OJ)».

Inolako zalantzarik gabe, gure herrialdeak nazioarteko garrantziko osasun publikoko larrialdia dela-eta aurrean duen egoera, batetik, eta bigarren alarma-egoera deklaratu eta hura luzatu izana, bestetik, nahikoa arrazoi dira hainbat neurri hartzeko aparteko eta presako beharrezana justifikatzeko. Gaur egun, Espainian beste kutsapen-olatu bat jasaten ari gara; horregatik, ahalik azkarren ezarri behar ditugu COVID-19aren hedapena eragozteko eta gaixotasunaren kutsapena saihesteko neurriak, osasun publikoa babestu behar dugu eta. Europako beste herrialde batzuetan, antzeko neurriak ezartzen ari dira, hau da, aparteko egoeraren indarraldia luzatzen ari dira esparru ekonomikoan, enpresen kaudimenean eta finantza-egonkortasunean eragiteko asmoz.

Beste alde batetik, Gas naturalaren barne-merkatutarako arau erkideei buruzko 2009/73/EE Zuzentaraua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko (EB) 2019/692 Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzeari dagokionez, bi inguruabar hartu behar dira kontuan. Alde batetik, horretarako epealdia 2020ko maiatzaren 24an amaitu zen. Horregatik, zuzentarau hori 27/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez txertatu zen, lehenengoz, Espainiako ordenamendu juridikoan (27/2020 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 4koa, Toki-entitateei aplikatzeko aparteko eta presako finantza-neurriena), baina irailaren 10ean Diputatuen Kongresuak hura indargabetzea erabaki zuen. Horrenbestez, berriz ere ordenamendu juridikoan txertatu behar da, ez badugu nahi zuzentarau hori Espainiako Erresumaren ordenamenduan txertatu beharra ez betetzeak eragingo lukeen arau-hauste prozedurak ondorioak sortzea.

Gainera, kasu honetan, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera ez da beharrezkoa ziur jakitea zuzentaraua ez txertetzeak ondorioak edukiko dituela. Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiak urtarrilaren 13ko 1/2012 epaian honako hau ezarri zuen: «errege lege-dekretuaz baliatzea lagungarria izan daiteke Batzordeak azkar erabakitzeke irekita daukan prozedura bat ixtea eta, gainera, EBJAk Espainiako Erresumak betebeharrak ez duela bete adieraztea eragozteko».

Orobat, salbuespenak —bigarren artikuluan arautzen den bezala onartu ondoren— Europako Batzordeari jakinarazteko epealdia joan den maiatzaren 24an amaitu zen. Horregatik, ezinbestekoa da Espainiako ordenamendu juridikoan horretarako prozedura ezartzea ahalik azkarren.

Abuztuaren 4ko 27/2020 Errege Lege Dekretuan, halaber, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidez 2020ko ekitaldian lortuko diren diru-sarrerak arautzen dira. Horren arabera, diru-sarrera horiek gauzatzeko, Ogasuneko ministroaren erabakiaren bidez baimena emango da Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren aurrekontuan mila milioi euroko kreditua eta kasuan-kasuan dagozkion kreditu-gehigarriak sortzeko. Aurrekontu-espeditente horiek ahalik azkarren izapidetu behar dira, 2020ko aurrekontu-ekitaldia itxi baino lehen, gai horretaz hasieran indarrean egon dena betetzeko. Neurri horren beharrezana justifikatuta dago, hura ez onartzeak ondorio kaltegarriak edukiko bailituzke sistema elektrikoaren likidazioa aplikatzen zaien subjektuen likidezian eta elektrizitate-kontsumitzaileengan.

Beste alde batetik, ezinbestekoa da, halaber, aurreko lege-dekretu batzuek sozietateez eta konkurtsoez ezarritako neurri batzuk luzatzea, 2021eko ekitaldian modu telematikoan egin ahal izateko kapital-sozietateen batzar nagusiak eta enpresen bideragarritasun ekonomikoa sustatzeko, neurri horien indarraldia amaituta edo amaitzear baitago.

Halaber, osasun-krisia gainditu eta normaltasunera itzuli aurretik, hau da, finantza-egonkortasuna bermatzen duen suspertze ekonomiko sendoa lortu aurretik, ahalik azkarren ezarri behar dira balore-merkatuen eta kapitalen zirkulazio askearen hegakortasunari aurre egiteko neurriak, ez dadin gerta ordena publikoan, segurtasun publikoan edo osasun publikoan eragina duen mugimendurik. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrienak, azken xedapenetako laugarrenean kapital-mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoa aldatzen du; hain zuzen ere, 7 bis artikulua eransten zaio araubide hori finkatzen duen uztailaren 4ko

19/2003 Legeari. Errege lege-dekretu honetan, aipatutako neurrien zenbait aldaketa jasotzen dira. Aldaketa horiek ezinbestekoak dira luze gabe onartzeko atzerriko zuzeneko inbertsioak kontrolatzeko mekanismoa zehaztuko duen errege-dekretua; horrela, batetik, behar bezala kontrolatu ahalko dira atzerriko zuzeneko inbertsioak, aurretik esan bezala ordena publikoa, segurtasun publikoa edo osasun publikoa babesteko, eta ziurtatzeko behar bezala aplikatzen dela liberalizazio-araubidea eten zaien inbertsioak baimentzeko prozedura, baina halako moldez non kapitalen zirkulazio askea modu proportzionalenean eta mugatuenean murrizten den.

Beste alde batetik, erakundearen ohiko jarduna ziurtatu nahian eta bitartekotasun-egoerarik ez gertatzeko, segurtasun juridikoa aintzat hartuta eta beste organismo ikuskatzaile batzuei buruzko araudiarekin bat etorritz, lehenbailehen aldatuko da urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 28.1.a) artikulua, eta, hala, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bere egitekoetan jarraitzea bermatuko da. Gainera, kontuan izan behar da laster, 2020ko azaroaren 25ean, batzordeburuaren eta batzordeburuordearen agintaldia amaituko dela.

Gogoan daukagu alderdi horiek legegintzako prozedura arruntaren edo Parlamentuko izapideetarako ezarritako presako prozeduraren bidez arautzeak ez lituzkeela eragotziko nahi ez diren ondorioak.

Ondoriorz, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrezana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio, Estatuaren politika zuzentzeko organoa den aldetik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. eta 7. oinarri juridikoak; 142/2014, irailaren 11koa, 3. OJ); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 14/2020 epaia, urtarrilaren 28koa), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarritz arreta. Azaldu berri ditugun egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau ez dela, inola ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo arbitrarioki erabiltzeko bidea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. OJ; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. OJ; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. OJ; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. OJ). Aitzitik, azaldutako argudio guztiek modu sakon eta arrazoituaren justifikatzen dute arau hau onartzea (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982, maiatzaren 31koa, 3. OJ; 111/1983, abenduaren 2koa, 5. OJ; 182/1997, urriaren 20koa, 3. OJ).

Esan behar da, gainera, errege lege-dekretu honek ez duela eraginik izango Estatuaren oinarritzko erakundearen antolamenduan eta Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ezta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskondeei buruzko zuzenbide orokorrean ere.

Beste alde batetik, errege lege-dekretu honek bete egiten ditu Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotzen diren erregulazio onaren printzipioak.

Hala, bete egiten da premiaren printzipioa, zeina guztiz justifikatuta geratu baita. Segurtasun juridikoaren, proportzionaltasunaren eta eraginkortasunaren printzipioak ere betetzen dira, eta nabarmentzen da neurriak ordenamendu juridikoarekin bat datozela eta haiekin aukerarik onena egiten dela salbuespenezko egoera ikusita, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar den eta ezinbestekoa den erregulazioa biltzen baitute.

Gardentasun-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretua izanik, ez da beharrezkoa aurretik kontsulta publikoa egitea, eta entzunaldi-izapidea eta informazio publikoaren izapidea ere ez dira behar, Gobernuari buruzko azaroaren 27ko 50/1997 Legearen 26.11 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz.

Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, behar-beharrezkoak diren kargak baino ez dira ezartzen.

Errege lege-dekretu honen hasieran, hitzaurrea dago, eta, ondoren, xedapen-zatia dator. Azken horren egitura honako hau da: hamar artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, hamalau azken xedapen eta eranskin bat. Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 6., 8., 10., 11., 13., 14., 23. eta 25. zenbakietan xedatutakoaren babesean ematen da. Zenbaki horietan, Konstituzioak Espainiako estatuari esleitzen dio gai hauen gaineko eskumen eskusiboa, hurrenez

hurren: espainiar guztiak konstituzio-eskubideak egikaritzeari eta konstituzio-eginbeharrak betetzeari dagokionez berdinak izango direla bermatzeko oinarrizko baldintzak; merkataritzako legeria, prozedura-legeria eta legeria zibila; aduanen eta arantzelen araubidea; kanpo-merkataritza; kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; herri-ogasuna; ingurumena babesteko oinarrizko legeria (hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek, oinarrizko legeria horren gehigarri, babes-arauak emateko dituzten ahalmenak); eta meatze- eta energia-araubidearen oinarriak.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuta, Gobernuak hirugarren presidenteorde eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroaren ekimenez, Justiziako ministroak, Ogasuneko ministroak, Industria, Merkataritza eta Turismo ministroak eta Gobernuak laugarren presidenteorde eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2020ko azaroaren 17ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

Enpresa-kaudimena laguntzea

1. artikulua. *Kreditu Ofizialeko Institutuaren bitartez abal publikoa jaso duten finantzaketa-eragiketen mugaeguneratze-epeak eta gabealdiak luzatzea autonomoei eta enpresei.*

1. Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean eskura jarritako abalen mugaeguneratze-epea hiru urtez luzatuko da, gehienez, baldin eta artikuluko honetan azaltzen diren baldintzak betetzen badira eta abala jaso duen eragiketaren mugaeguneratze-epe osoak zortzi urte gairatzen ez baditu eragiketaren hasierako formalizazioaren datatik aurrera.

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak onartutako abal-linean diharduten kreditu-entitate, kredituko finantza-establezimendu, diru elektronikoko entitate eta ordainketa-entitateek hiru urtez luzatuko dute, gehienez, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean abala jaso duten eragiketen mugaeguneratze-epea, zordunak hala eskatzen badu. Betiere, abala jaso duen eragiketaren mugaeguneratze-epe osoa ezingo da zortzi urte baino luzeagoa izan eragiketaren hasierako formalizazioaren datatik aurrera.

Abalaren mugaeguneratze-epearen luzapena bat etorriko da abala jaso duen maileguaren mugaeguneratze-epearen luzapenarekin.

2. Zordunak, artikuluko honetan adierazitako baldintzak betetzen dituela, hala eskatzen badu, martxoaren 17ko 8/2020 eta uztailaren 3ko 25/2020 errege lege-dekretuek onartutako abal-lineetan diharduten kreditu-entitate, kredituko finantza-establezimendu, diru elektronikoko entitate eta ordainketa-entitateek hamabi hilabetez luzatuko dute, gehienez, abala jaso duen eragiketaren printzipalaren amortizaziorako gabealdia, baldin eta guztizko gabealdia, hasierako gabealdia ere kontuan hartuta, 24 hilabete baino gehiagokoa ez bada. Aldeak ados jarriz gero, gabealdiko kuotei dagokien kapitala maileguaren azken kuotari metatu ahalko zaio, edo gainerako kuoten artean hainbanatu ahalko da, edo bi sistema horiek konbinatuz amortizatu. Adostasunik ezean, gainerako kuoten artean hainbanatuko da.

3. Martxoaren 17ko 8/2020 eta uztailaren 3ko 25/2020 errege lege-dekretuek onartutako abal-lineetan diharduten kreditu-entitate, kredituko finantza-establezimendu, diru elektronikoko entitate eta ordainketa-entitateek 2021eko ekainaren 30era arte mantenduko dituzte zordunari emandako zirkulatzaile-lineen mugak, zordunak artikuluko honetan adierazitako baldintzak betetzen baditu eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren edo uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren babesean abala jaso duen mailegua badauka.

4. Aurreko apartatuan azaltzen diren neurriak aplika daitezela eskatu ahal izateko, zordunak baldintza hauek bete beharko ditu:

- a. Zordunak 1. apartatuko edo 2. apartatuko neurriak aplika daitezela eskatu izana.
- b. Abala jaso duen finantzaketa-eragiketa eta entitateak bezero berari emandako gainerako finantzaketak ez egotea berandutza-egoeran (90 egunez baino gehiagoz ordaindu gabe).
- c. Luzapena formalizatzen den egunean, zorduna ez agertzea berankortasun-egoeran Espainiako Bankuko Arriskuen Informazio Zentralaren (CIRBE) fitxategietan.
- d. Abala jaso duen eragiketan, finantza-entitateak zordunaren ordaindu gabekorik jakinarazi ez izana abala eman duen entitateari, luzapena formalizatzen den egunean.
- e. Zorduna konkurtso-prozedura baten pean ez egotea.
- f. 1. eta 2. neurriak aplikatu ahal izateko, abala jaso duen finantzaketa formalizatuta egotea errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunaren aurretik.
- g. Zordunak 1. eta 2. neurriak beranduenez 2021eko maiatzaren 15ean eskatzea entitateari.
- h. Zordunak, abalaren luzapena eskatzeko, Europar Batasuneko estatu-laguntzei buruzko araudian ezarritako mugak ez gainditzea.

5. Eskaera egiten duen zordunak aurreko apartatuan ezarritako baldintzak betetzen baditu, finantza-entitateek artikuluko honetako goragoko apartatuetan ezarritako neurriak aplikatuko dituzte. Gainera, finantza-entitateek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a. Banku-ohitura eta -jardunbide egokienak aplikatu beharko dituzte bezeroen onerako, eta ezin izango diote bezeroari eskatu entitatearen beste produkturen bat kontrata dezala, abal publikoa duten maileguen baldintzak edo artikuluko honetan aurreikusitako gainerako neurriak aldatu ahal izateko.
- b. Errege lege-dekretu honetan aurreikusitako luzapena aplikatzen zaien maileguen kostuak luzapenaren aurretik kargatutako kostuen ildoan mantenduko dira, eta abalaren ordainketaren garestitzea islatzeko baino ezin izango dira igo.
- c. Trazabilitatea errazte aldera, beren kontabilitate-sisteman eta arriskua kudeatzeko sisteman jasoko dituzte eragiketen baldintzen aldaketak eta, halakorik egonez gero, baldintza berriak. Ondoren, informazio horren berri emango dute Arriskuen Informazio Zentralarentzako aitopenean, Espainiako Bankuak horretarako emandako jarraibideak betez.

6. Arau honetan aurreikusitako geroratzeak dokumentu publikoan formalizatzekoak badira, finantza-entitateak finantzaketa-akordioa publiko bihurtuko du edo hartan esku hartzeko eskatuko du, bere kabuz, eta, kasua bada, Kreditu Ofizialeko Institutuak eta beste fidantza- eta abal-emaile batzuek hura bermatzeko ere eskatuko du, baldin eta zordunak ez badu berriaz adierazten notarioaren aurrean agertu nahi duela bi aldeek onespena emateko.

7. Kreditu-entitateek artikuluko honetako xedapenak ustez bete ez dituztela-eta jartzen diren erreklamazioak Espainiako Bankuaren aurrean aurkeztu ahalko dira, eta Espainiako Bankuak izapidetu eta ebatzi behar dituen gainerako erreklamazioen antzera aztertuko dira.

8. Entitateek gehienez 30 egun naturaleko epea izango dute zordunaren eskabideari erantzuteko, eta, baiezkoa ematen badute, epe bera izango dute Kreditu Ofizialeko Institutuari jakinarazteko abalaren baldintzen aldaketa eskatu dela. Artikulu honen 2. apartatuan jasotako gainerako ondoreak abalaren mugaeguneratze-epea luzatzen den unean gauzatu beharko dira beranduenez.

9. Abalen baldintzak aldatzeko eskabideak 2021eko ekainaren 1era arte jakinarazi ahalko zaizkio Kreditu Ofizialeko Institutuari. Jakinarazpen hori Kreditu Ofizialeko Institutuak ezarritako duen eta finantza-entitateei adieraziko zaien prozeduraren arabera egingo da.

10. Artikulu honetako xedapenak gauzatzeko gainerako baldintzak, abal publikoaren ordainketa barnean dela, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez ezarriko dira, eta, haiek aplikatzeko, ez da beharrezkoa izango gerora araudia garatzea.

11. Errege lege-dekretu honetan jasotako abalek Europar Batasuneko estatu-laguntzei buruzko araudia beteko dute. Ez da errege lege-dekretu honen babesean inongo abalik emango edo luzatuko harik eta Europako Batzordeak horretarako baimena berariaz eman arte.

2. artikulua. *Mugaeguneratze-epeen eta gabealdien luzapena eskritura publikoaren bidez formalizatzea.*

1. Formalizazioaren eta inskripzioaren ondoriozko notariotzako eta erregistroko arantzel-eskubideek, hipoteka-bermea dagoenean, % 50eko hobaria izango dute, modu honetara:

a. Eskritura egilesteagatik, hipoteka-nobazioko eskriturei dagokien arantzela sortuko da (hemen arautzen da: 1426/1989 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, notarioen arantzela onartzen duena; I. eranskinaren 1. zenbakiaren 1. apartatuaren f letra), % 50 murriztuta. Ez da ezer ordaindu beharko matrizearen zein kopiaren (izan eskuetsia, izan arrunta) bosgarren foliotik aurrera. Betiere, eskriturari aplikatu ahal zaizkion notario-arantzel guztien batura gutxienez 30 euro eta gehienez 75 euro izango da kontzeptu guztiengatik.

b. Arau honetan aurreikusten diren geroratzeak formalizatzen dituzten eta, horrez gain, hipoteka-bermerik gabeko edozein mailegu edo kredituren ondoriozkoak diren polizetan esku hartzearen eraginez sortzen diren notario-arantzelen eskubideak 1950eko abenduaren 15eko Dekretuan ezarritakoak izango dira, eta % 50eko hobaria izango dute.

Betiere, polizari aplikatu ahal zaizkion notario-arantzel guztien batura gutxienez 25 euro eta gehienez 50 euro izango da kontzeptu guztiengatik, kopiak eta lekualdaketak barne.

c. Inskribatzeko moduko berme erreala dagoenean, inskripzioa egiteagatik kasuan kasuko arantzela aplikatuko da: jabetza-erregistratzaileen kasuan, nobazio aldarazleei dagokien arantzela (hemen arautzen da: 1427/1989 Errege Dekretua, azaroaren 17koa, erregistratzaileen arantzela onartzen duena; I. eranskinaren 2.1.g artikulua), eta merkataritzako erregistratzaileen kasuan, 1999ko uztailaren 19ko Aginduaren 36. artikuluan aurreikusitakoa (agindu horrek Ondasun Higigarrien Epekako Salmentaren Erregistroari buruzko Ordenantza onartzen du). Arantzel horri % 50eko hobaria aplikatuko zaio. Betiere, dokumentuari aplikatu ahal zaizkion erregistro-arantzel guztien batura gutxienez 24 euro eta gehienez 50 euro izango da, kontzeptu guztiengatik.

2. Inskribatzeko moduko berme erreala dagoen kasuetan, arau honetan aurreikusitako geroratzeak publiko bihurtzeko eskriturretan, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari egintza juridiko dokumentatuen modalitatean aplikatzen zaion notario-agirien kuota mailakatua ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira.

3. Aurreko apartatuetan ezarritakoa aplikatzekoa izango da, halaber, akordioaren xede den finantzaketa-eragiketa publiko bihurtzen denean edo bertan esku hartzen denean, hemen araututako geroratzea formalizatzearen ondorioz.

3. artikulua. *Zuzenbide pribatuko pertsona juridikoei aplikatu beharreko aparteko neurriak.*

1. Salbuespen gisa, 2021. urtean, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 1. artikuluan aurreikusten diren kapital-sozietateei (dekretu horrek Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen du) neurri hauek aplikatuko zaizkie:

a) Sozietate anonimoen kasuan, nahiz eta estatutuetan halakorik ez aurreikusi, administrazio-kontseiluak batzar nagusirako deialdian aurreikusi ahal du sozietate anonimo kotizatuen kasuan bide telematikoetik parte hartzea eta urrunetik bozkatzea, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 182. eta 189. artikuluetan eta

lege-testu beraren 521. artikuluan adierazitako eran, bai eta batzarra lurralde nazionalako edozein lekutan egitea ere.

b) Erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan eta akziokako erantzukizun komanditarioko sozietateen kasuan, nahiz eta estatutuetan ezarrita ez egon, batzar nagusia bideokonferentziaz edo telekonferentziaz egin ahalko da, baldin eta bertaratzeko eskubidea duten pertsona guztiek (edo beren ordezkariak) behar diren baliabideak badituzte eta organoko idazkariak bakoitza nor den badaki eta aktan horren berri ematen badu. Akta berehala bidaliko die batzartutako guztiei, bakoitzaren helbide elektronikora.

2. Salbuespen gisa, 2021. urtean, nahiz eta estatutuetan halakorik ez aurreikusi, elkartekideen edo zuzenbide pribatuko gainerako pertsona juridikoetako (elkartek, sozietate zibilak eta kooperatiba-sozietateak) bazkideen batzarrak bideokonferentziaz edo telekonferentziaz egin ahalko dira, baldin eta bertaratzeko eskubidea duten pertsona guztiek (edo beren ordezkariak) behar diren baliabideak badituzte eta organoko idazkariak bakoitza nor den badaki eta aktan horren berri ematen badu. Akta berehala bidaliko die batzartutako guztiei, bakoitzaren helbide elektronikora.

3. Salbuespen gisa, 2021. urtean, nahiz eta estatutuetan halakorik ez aurreikusi, fundazioen patronatuaren bilerak bideokonferentziaz edo telekonferentziaz egin ahalko dira, baldin eta organoko kide guztiek behar diren baliabideak badituzte eta organoko idazkariak bakoitza nor den badaki eta aktan horren berri ematen badu. Akta berehala bidaliko die bileran izan direnei, bakoitzaren helbide elektronikora.

II. KAPITULUA

Energia-sektoreari buruzko neurriak

4. artikulua. *Aldi baterako salbuespenak Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideetarako edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideetarako.*

1. Gas naturaleko Medgaz gasbidea, Espainiaren jurisdikziopeko uretan zehar pasaturik Almeriako terminalera heltzen dena, aldi batez salbuetsita egongo da Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen duena betetzetik, hain zuzen ere hamalau hilabetez, 2020ko maiatzaren 24tik aurrera.

2. Gas naturaleko Magreb-Europa gasbidea, Espainiaren jurisdikziopeko uretan zehar pasaturik Tarifako (Cádiz) terminalera heltzen dena, aldi batez salbuetsita egongo da Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen duena betetzetik, hain zuzen ere hamalau hilabetez, 2020ko maiatzaren 24tik aurrera.

3. Aurreko apartatuetan ezartzen diren aldi baterako salbuespenak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroaren aginduz luzatu ahalko dira, titularrek eskabide arrazoitua aurkezten badute. Eskabidea salbuespenaren indarraldia amaitu baino sei hilabete lehenago gutxienez aurkeztu beharko zaio organo horri.

Nolanahi ere, luzapenen iraupena finkatzeko eta onartzeko prozedura aplikatzeko, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 71 bis artikuluan ezartzen duena hartu beharko da kontuan. Hori dela eta, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak eskabideak behar bezala ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahalko die titularrei.

5. artikulua. *Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidezko diru-sarrerak 2020ko ekitaldirako.*

1. Indarra bakar-bakarrik 2020ko ekitaldian aplikatu beharreko Estatuaren Aurrekontu Orokorretarako duela, 23.03.000X.737 aplikazioan kreditu bat sortu ahalko da, 1.000.000,00 mila eurokoa gehienez, baldin eta berotegi-efektuko gasak isurtzeko

eskubideen enkanteen bidezko diru-sarrerren benetako bilketaren % 90 —Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 1.b) apartatuan aipatzen den ehunekoa— gehiago bada aplikazio horren hasierako kredituan aurreikusitako zenbatekoa baino. Hau da 23.03.000X.737 aplikazioaren izena: «Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, sektore elektrikoaren kostuak finantzatzeko, Jasangarritasun Energetikorako Neurri Fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren b) letraren arabera».

2. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteen bidezko diru-sarrerak, 17/2012 Legearen bosgarren xedapen gehigarriaren 2. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik (abenduaren 27ko 17/2012 Legea, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa), klima-aldaketari aurre egitea helburu duten beste jarduketa batzuetarako erabiliko dira, Estatuko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan soilik, muga hauekin: guztizko diru-bilketaren % 10 gehienez, eta 100.000,00 mila euro gehienez.

3. 2020ko aurrekontu-ekitaldian, Ogasuneko ministroaren erabakien bidez emango dira baimenak Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren aurrekontuan kredituak sortzeko eta kreditu-gehigarriak emateko, aurreko apartatuetan xedatutakoaren ildotik.

III. KAPITULUA

Zergen arloko neurriak

6. artikulua. *COVID-19aren ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren Europar Batasunaren barruko ondasunen entregatze, inportazio eta erosketei aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa.*

2020ko azaroaren 1etik 2021eko apirilaren 30era arte balio erantsiaren gaineko zergaren % 0ko tasa aplikatuko zaie errege lege-dekretu honen eranskinean aipatzen diren ondasunen Europar Batasunaren barruko entregatze, inportazio eta erosketei, baldin eta horien hartzaileak zuzenbide publikoko entitateak, klinika edo ospitaleak edo gizarte-izaerako entitate pribatuak badira, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeak 20. artikuluan 3. apartatuan aipatzen dituen horietakoak. Eragiketa horiek, fakturretan, eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira.

7. artikulua. *Balio erantsiaren gaineko zergaren % 4ko tasa aplikatzea maskaren Europar Batasunaren barruko entregatze, inportazio eta erosketei.*

Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik 2021eko abenduaren 31ra arte, balio erantsiaren gaineko zergaren % 4ko tasa aplikatuko da Europar Batasunaren barruko entregatze, inportazio eta erosketetan, Sendagaien Prezioetarako Ministerioarteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Erabakian aipatzen diren erabili eta botatzeko maskara kirurgikoei dagokienez. Batzordearen erabaki hori Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Zerbitzuen Zorro Komunaren Zuzendaritza Nagusiaren 2020ko azaroaren 13ko Ebazpenaren bidez argitaratu da, eta publikoarentzako gehieneko salmenta-prezioak berrikusten ditu, Sendagaien eta osasun-produktuen bermeen eta erabilera zentzuzkoaren legearen testu bateginak (uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Lege Dekretuaren bidez onartua) 94.3 artikuluan aurreikusten duena aplikatuz.

8. artikulua. *Kreditu-gehigarri bat ematea Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioarentzat.*

1. Kreditu-gehigarri bat ematen da, 6.000.000.000 eurokoa, Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren aurrekontuko 19.02.000X.429.06 aurrekontu-aplikazioan («Gizarte Segurantzaren kontuetan COVID-19ak izandako eragina orekatzeko transferentzia»).

2. Kreditu-gehigarri hori zor publikoaren kargura finantzatuko da, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak (6/2018 Legea, uztailaren 3koa) 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

9. artikulua. *Aparteko kreditu bat ematea Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioarentzat.*

1. Aparteko kreditu bat ematen da, 2.300.000.000 eurokoa, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren aurrekontuko 19.03.000X.419 aurrekontu-aplikazioan («Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan langabezia-sorospenen kuotak eta kotizaziopeko prestazioak finantzatzea»), egungo testuinguruan, aurrekontua luzatuta dagoela, COVID-19ari aurre egiteko hartutako neurriek eragindako gastuaren ondorioz.

2. Aparteko kreditu hori zor publikoaren kargura finantzatuko da, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak (6/2018 Legea, uztailaren 3koa) 46. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

3. Aurreko artikuluan ematen den aparteko kredituak gehikuntza hauek eragingo ditu 19.101 erakunde autonomoaren (Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa) aurrekontuan:

Gastuen aurrekontuan:

a) 19.101.251M.480.00 aplikazioan, «Kotizaziopekoak, aurreko ekitaldietako obligazioak barne»; 1.603.035.654,67 euro.

b) 19.101.251M.487.01 aplikazioan, «Langabezia-sorospenen onuradunen kuotak, aurreko ekitaldietako obligazioak barne»; 696.964.345,33 euro.

Diru-sarreraren aurrekontuan:

19.101.400.00 aplikazioan, «Estatuaren transferentzia Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuan langabezia-sorospenen kuotak eta kotizaziopeko prestazioak finantzatzeko»; 2.300.000.000 euro.

10. artikulua. *6/2018 Legeko zenbait arau lurralde-administrazioei aplikatzea (6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena).*

1. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 111.etik 125.era bitarteko eta 135.etik 146.era bitarteko artikulua aplikatzeari begira (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), 2020rako luzatutzat emango da 6/2018 Legearen 99. artikulua indarraldia (6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena), 2016. urtearen aipamenerordez 2018. urtea ipinita, eta azken arau horren 100.etik 103.era bitarteko artikulua, 105. artikulua, 106.a, 108.etik 111.era bitartekoak, 113.a eta 115.a aintzat hartuta, bertan aipatzen diren 48/2015 Legearen manuen ordeztan (48/2015 Legea, urriaren 29koa, 2016rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena).

2. Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 121. artikulua aplikatzeari begira (testu bategin hori martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen), luzatutzat joko da 6/2018 Legearen ehun eta hamaikagarren xedapen gehigarriaren indarraldia (6/2018 Legea, uztailaren 3koa, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrena), 2016. urtearen aipamenerordez 2018. urtea ipinita.

Xedapen gehigarri bakarra. *Kreditu Ofizialeko Institutuak CIRBERako sarbidea izatea.*

Kreditu Ofizialeko Institutuak, beraren abala duten maileguak eman dituzten finantza-entitateek jakinarazten dizkioten ordaindegabeak CIRBEn egiaztatzeko izapideak arintze aldera, eskubidea izango du pertsona fisiko edo juridikoek CIRBEn erregistratuta dauzkaten arriskuei buruzko informazioa jasotzeko, hala eskatzen badu, eta ez ditu bete behar Finantza Sistema Erreformatzeko Neurrien Legeak (44/2002 Legea, azaroaren 22koa) 61. artikuluan ezarritako betekizunak eta gai horri buruzko arauak garatzen edo osatzen dituzten beste xedapen batzuek ezarritakoak.

Xedapen iragankor bakarra. *Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetako egoiliarrek Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsio batzuen liberalizazioa eteteko araubide iragankorra.*

Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsio batzuen liberalizazioa eteten duen araubidea, uztailaren 4ko 19/2003 Legeak 7 bis artikulua 2. eta 5. apartatuetan arautzen duena, 2021eko ekainaren 30era arte aplikatuko zaie Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko herrialdeetako egoiliarrek Espainian kotizatzen duten enpresetan egindako atzerriko zuzeneko inbertsioei, edo kotizatzen ez duten enpresetan egindakoei, inbertsioaren balioa 500 milioi eurotik gorakoa bada. Hori dela eta, hauek dira Espainian kotizatzen duten sozietateak: akzio guztiak edo batzuk Espainiako bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartuta dauzkaten sozietateak, sozietatearen goitza Espainian badago.

Aldi baterako araubide honen ondorioetarako, Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsioetat hartuko dira inbertitzaileari Espainiako sozietate baten kapital sozialaren % 10eko partaidetza edo hortik gorakoa ematen dioten inbertsioak, bai eta sozietate-eragiketaren edo egintza edo negozio juridikoaren ondorioz inbertitzaileari sozietatea kontrolatzeko aukera ematen diotenak ere (sozietate baten kontrola zer den Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 7.2 artikuluan ezarritako irizpideen arabera zehazten da), izan Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko herrialdeetako egoiliarrek egiten dituztenak, izan Espainiako egoiliarrek egiten dituztenak, baldin eta titular errealak Europar Batasuneko eta Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetako egoiliarrek badira. Titulartasun erreal hori dagoela ulertuko da azken horiek, zuzenean edo zeharka, inbertitzailearen kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 edo gehiago daukatenean edo kontrolatzen dutenean, edo beste bitarteko batzuen bidez inbertitzailea kontrolpean daukatenean, zuzenean nahiz zeharka.

Azken xedapenetako lehena. *Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzen duen uztailaren 6ko 19/1994 Legea aldatzea.*

Kanarietako Ekonomia eta Zerga Erregimena aldatzen duen uztailaren 6ko 19/1994 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 27. artikulua 11. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«11. Artikulu honetan aipatzen diren zergadunek alde zuzeneko inbertsioak egin ahalko dituzte, eta inbertsioetarako erreserba gauzatzearen izaera izango dute, inbertsioa egiten den zergaldian edo hurrengo hiru zergaldietan lortutako etekinen kontura zuzkitzean; betiere, bertan eskatzen diren gainerako eskakizunak betetzen badira.

Zuzkidura horiek 2021eko abenduaren 31ra arte lortutako etekinen kargura egin beharko dira.

Haren gauzatzea eta finantzaketa-sistema komunikatu beharko dira alde zuzeneko inbertsioak egiten diren zergaldiko sozietateen gaineko zergaren aitortzarekin, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitortzarekin edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzarekin batera».

Bi. 29. artikulua 2. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Hala eta guztiz ere, Kanarietako Eremu Bereziko Erakundearen Erregistro Ofizialean inskribatzeko baimenaren epemuga 2021eko abenduaren 31 izango da».

Azken xedapenetako bigarrena. *Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea.*

Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Paragrafo bat gehitzen da 58. artikulua a) letraren azkenean; hona:

«Garraio-sarearen kudeatzaileek akordio teknikoak egin eta mantendu ahalko dituzte Espainiaren eta Europar Batasunetik kanpoko herrialdeen arteko gasbideak kudeatzearen inguruko gaiez, baina akordio horiek bateragarriak izan beharko dute Batasunaren barruko gas naturalaren merkatuari buruzko araudiarekin eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren zirkularrekin eta ebazpenekin. Akordio horiek Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaizkie».

Bi. 63 quater artikulua 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Gasbideen sare nagusiko instalazioen bat daukaten enpresek ez badituzte betetzen 63.3 artikuluan jardueren bereizketaz ezartzen diren baldintzak, instalazioaren jabetza 2009ko irailaren 3a baino lehenagotik daukatela, instalazioaren kudeaketa sare-kudeatzaile independente bati lagatzea erabaki ahalko dute. Gauza bera egin ahalko dute 2019ko maiatzaren 23a baino lehen Europar Batasunetik kanpoko herrialdeekin konektatzeko instalazioen bat dutenek ere.

Hori dela eta, sare-kudeatzaile independente bat proposatuko dute, garraio-jardueren arteko bereizketaren baldintzak betetzearen ziurtagiria lortu duten enpresen artean, eta hura onartzeko eskatuko diote Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari. Izendapena gauzatzeko, ezinbestekoa izango da Europako Batzordeak proposamena onartzea. Sare-kudeatzaile independenteak lege honetan eta hura garatzeko araudian ezartzen diren baldintzetako bat bete ezean, proposatutakoa izendatzea ukatu ahalko da».

Hiru. 71. artikulua honela idatzita geratzen da:

«71. artikulua. *Hirugarrenei sarbidea emateko betebeharretik salbuestea.*

1. 70. artikulua 6. apartatuan aipatzen den hirugarrenei sarbidea emateko betebeharretik salbu gelditzeko eskatu ahalko da, baldintza hauek betez gero:

a) Inbertsioak gasaren horniduraren arloko lehia bultzatu behar du eta horniduraren segurtasuna hobetu behar du.

b) Inbertsioaren berezko arrisku-maila handia izan behar da, salbuespena eman ezean inbertsioa ez egiteko modukoa, hain zuzen ere.

c) Azpiegitura ezin da izan hura eraikiko den sareen jabe diren garraiatzaileena, beste entitate batena baizik, nortasun juridikoaren aldetik behintzat.

d) Azpiegitura erabiltzen dutenei kanonak kobratuko zaizkie.

e) Salbuespena ezin da izan kaltegarria seguruenik inbertsioaren eragina jasoko duten merkatuetako lehiarako, ez Europar Batasunaren barruko gas naturalaren merkatuaren funtzionamendu eraginkorrerako, ez inbertsioen eraginpeko sare arautuen funtzionamendu eraginkorrerako, ez Europar Batasunaren barruko gas naturalaren horniduraren segurtasunerako.

Hirugarrenei sarbidea eman behar diren salbuespenak azpiegitura berri osoaren edo ahalmena handitu zaion lehengo azpiegituraren ahalmen osoa zein zati bat har dezake.

2. Hori dela eta, instalazioaren titularrak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari eskatuko dio salbuespena; aurretik, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena egin beharko du.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak jasotzen dituen salbuespen-eskabide guztien kopiak bidaliko ditu Europako Batzordera, eta kasu bakoitza banaka aztertuko du, alderdi hauek kontuan hartuz, besteak beste: ahalmen gehigarria edo lehendik dagoen ahalmenaren aldaketa, proiektua amaitzeko ezarritako epealdia eta gasaren sektorearen inguruabarrak. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere txostenean zenbait baldintza proposatuko ditu, salbuespenaren iraunaldiari buruz eta azpiegitura diskriminaziorik gabe erabiltzeari buruz.

Horrez gainera, txosten horretan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak azpiegituraren ahalmena kudeatzeko eta esleitzeko arauak eta mekanismoak proposatuko ditu. Betiere, balizko erabiltzaile guztiei galdetuko zaie ea ahalmen berria (norberak erabiltzekoa barne) kontratatzeko interesik baduten, hura esleitu aurretik. Galdeketa horren emaitzak kontuan hartuko ditu Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak artikuluan honen 1. apartatuan ezartzen diren irizpideak betetzen diren ala ez ebaluatzeko.

Erabiltzen ez den ahalmena merkatuan eskaini beharko da, gardentasunez, modu objektiboan eta diskriminaziorik gabe, eta azpiegituraren erabiltzaileek kontratatutako ahalmena bigarren mailako merkatuan saltzeko eskubidea edukiko dute.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako hauekin hitz egingo du salbuespenaren gaineko azken txostena eman aurretik:

a) Azpiegitura berriak seguruenik eragina edukiko duen Batasuneko estatuetakoa agintaritza arautzaileekin.

b) Azpiegitura Europar Batasunaren sarera konektaturik badago Batasuneko estatu baten jurisdikziopean eta sorburua edo xedea Batasunetik kanpoko herrialde batean edo gehiagotan badauka, herrialde horietako agintaritza eskudunekin.

Hirugarren herrialde bateko agintaritza batek ez badu erantzuten bi hilabete igaro baino lehen, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aurrera egin ahalko du salbuespenaren izapideekin.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak txostena eta espedienteko dokumentazio osoa Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari helaraziko dizkio; hark ebazpena emango du, agindu baten bidez, eta agindua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da. Gainera, agindu hori eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak emandako txostena erakunde horren webgunean plazaratuko dira.

4. Salbuespenaren agindua Europako Batzordeari jakinaraziko zaio, haren inguruko informazio egoki guztiarekin batera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauaren 36.9 artikuluan onorioetarako, eta, gero, moldatu edo ezeztatu egingo da, kasuan kasukoa, Batzordeak artikuluan horrekin bat etorri hartzen duen erabakiaren arabera.

5. Europako Batzordeak onartzen duen salbuespen-erabakia indarrrik gabe geldituko da onartzen denetik bi urte igarotakoan, baldin eta ordurako azpiegitura eraikitzeari ekin ez bazaio, eta onartzen denetik bost urte igarotakoan, baldin eta ordurako azpiegitura abian ez bada. Nolanahi ere, bi kasu horietan, Europako Batzordeak erabaki dezake badaudela atzerapenerako arrazoiak, eta horrelakoetan erabakiak ez du indarra galduko.

6. Salbuespena zer azpiegituratarako eskatzen den eta azpiegitura hori Europar Batasuneko herrialde batean baino gehiagotan badago, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauaren 36.4 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da».

Lau. 71 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«71 bis artikulua. *Salbuespenak Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideetarako edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideetarako.*

1. Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideak edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideak, 2019ko maiatzaren 23rako haiek eraikitzen amaitu bada, Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legeak 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen duena bete beharretik salbu gelditu ahalko dira 20 urtez, gehienez, 2020ko maiatzaren 24tik aurrera (aldi hori kasu jakin batzuetan luzatu ahalko da, 3. apartatuan arautzen denaren arabera justifikatuz gero).

2. Batasunetik kanpoko herrialdeetako gasa dakarten gasbideen edo gasa Batasunetik kanpoko herrialdeetara daramaten gasbideen jabeek lehenengo apartatuan arautzen den salbuespena aplikatzeko eskatu ahalko diote Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroari. Eskabidean, salbuespenerako arrazoi objektiboa azaldu beharko dute (egindako inbertsioa berreskuratzea, horniduraren segurtasuna edo Europar Batasunaren barruko gasaren merkatuaren funtzionamendua), eta salbuespena ezin da izan kaltegarria lehiarako.

3. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako ministroak ebazpena emango du, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak salbuespenak lehiari edo Batasunaren barruko gasaren merkatuaren funtzionamenduan edukiko lukeen eraginari buruzko txostena eman ondoren, eta ebazpen horretan salbuespena emango da aurreko paragrafoan aipatzen diren arrazoi objektiboak betetzen direla egiaztatuz gero; bestela, ukatu egingo da. Salbuespena luzatzeko ebazpenean, mugak ezarri ahalko dira, aipatutako helburuak lortzen laguntzeko.

4. Aurreko apartatueta arautzen den salbuespenak ez dakar berekin instalazioak gas naturalaren sektoreko ordainsarien araubidean egotea.

Erabiltzen ez den ahalmena merkatuan eskaini beharko da gardentasunez, modu objektiboan eta diskriminaziorik gabe, eta azpiegituren erabiltzaileek eskubidea izango dute kontratatutako ahalmena bigarren mailako merkatuan saltzeko.

5. Xedapen honetan arautzen den salbuespena jasotzen duten instalazioen titularrek urtero txostena bidali beharko dute Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalera eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora, eta bertan zehaztu beharko dute aurreko urte naturalean gasbide bakoitzaren ahalmena nola erabili den, zer enpresak erabili dituzten instalazioak eta zenbat gas garraiatu duen bakoitzak, zein izan diren sarbide-prezioak, eta organismo horiek eskatzen duten gainerako informazio guztia. Txosten hori urteko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik bidali beharko da.

Salbuespena onartzen denetik urtebete igarotakoan, salbuetsitako instalazioen titularrek urriaren 7ko 34/1998 Legearen 63.3, 63 bis, 63 ter eta 70. artikuluetan ezartzen dena betetzen dela bermatzeko egingo diren jarduketan egutegia bidali beharko dute Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora, salbuespenaren indarraldia amaitu baino lehen.

6. Instalazioen titularrek berezita arteztu beharko dituzte garraio-jardueren kontuak eta merkaturatze-jardueren kontuak, eta kontu horiek aurreko apartatuan aipatzen den urteko txostenean sartu beharko dituzte».

Bost. Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. *Akordioak Europar Batasunekoak ez diren herrialdeekin garraio-gasbideei buruz.*

Espainiak negoziazioak egiten dituenean Europar Batasunekoak ez diren herrialdeekin Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 13ko 2009/73/EE Zuzentarauaren aplikazio-eremuko garraio-gasbideen kudeaketari buruzko akordioak sinatzeko edo sinatuta dauden akordioak aldatzeko edo zabaltzeko, zuzentarau horrek 49 ter artikuluan xedatzen duena aplikatuko da».

Azken xedapenetako hirugarrena. *Euroa indarrean jartzeko abenduaren 17ko 46/1998 Legea aldatzea.*

Euroa indarrean jartzeko abenduaren 17ko 46/1998 Legearen 25. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«25. artikulua. *Txanponak eta billeteak trukatzea, 2002ko uztailaren 1etik aurrera.*

2002ko uztailaren 1etik aurrera, pezeta-billeteak eta -txanponak euro-billete eta -txanponekin trukatzea Espainiako Bankuak ez bestek egingo du, aldez aurretik lege honetako 11. artikuluan xedatzen denarekin bat etorri egin beharreko biribiltzea eginik. Pezeta-billete eta -txanponen truke Espainiako Bankuan euroak eskuratzeko epea 2021eko ekainaren 30ean amaituko da. Egun horretatik aurrera ezingo da pezeta-billetek edo -txanponik euroekin trukatu».

Azken xedapenetako laugarrena. *Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzko uztailaren 4ko 19/2003 Legea aldatzea.*

Kapitalen mugimenduen eta atzerriarekiko transakzio ekonomikoen araubide juridikoari buruzko uztailaren 4ko 19/2003 Legea aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 7 bis.1 artikulua lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, Espainian egindako atzerriko zuzeneko inbertsioetat hartuko dira inbertitzaileari Espainiako sozietate baten kapital sozialaren % 10eko edo hortik gorako partaidetza ematen dioten inbertsio guztiak, bai eta sozietate-eragiketaren edo egintza edo negozio juridikoaren ondorioz inbertitzaileari sozietatearen kontrola ematen diotenak ere, Lehia Defendatzeko Legeak (15/2007 Legea, uztailaren 3koa) 7.2 artikuluan ezartzen dituen irizpideen arabera. Nolanahi ere, inguruabar hauetako bat gertatu behar da».

Bi. 7 bis.1 artikulua azken paragrafoa ezabatzen da.

Hiru. Uztailaren 4ko 19/2003 Legearen 7 bis.2 artikuluko lehen paragrafoa eta b), c) eta e) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Eten egiten da Espainian egiten diren atzerriko zuzeneko inbertsioen liberalizazio-araubidea, baldin eta jarraian aipatzen diren sektoreetan egiten badira eta ordena publikoari, segurtasun publikoari eta osasun publikoari eragiten badiete».

(...)

«b) Teknologia kritikoak eta erabilera bikoitzekoak, lidergorako eta gaikuntza industrialerako funtsezkoak diren teknologiak, eta Espainiarentzat interes berezia duten programen eta proiektuen babesean garatutako teknologiak, tartean direla telekomunikazioak, adimen artifiziala, robotika, erdieroaleak, zibersegurtasuna, teknologia aeroespazialak, defentsarako teknologiak, energia biltegitratzekoak,

teknologia kuantikoa eta nuklearra, nanoteknologiak, bioteknologiak, material aurreratuak eta fabrikazio-sistema aurreratuak».

«c) Oinarrizko inputen hornidura, bereziki energiarena, hain zuzen ere Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legean eta Hidrokarburoen Sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legean arautzen direnak, edo konektagarritasun-zerbitzu estrategikoei nahiz lehengaiei eta elikagaien segurtasunari buruzkoak».

(...)

«e) Komunikabideak; nolahi ere, Ikus-entzunezko Komunikazioaren martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorrean definitutako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak lege horretan xedatutakoari jarraituz arautuko dira».

Lau. 7 bis.3 artikuluan a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Atzerriko inbertitzailea zuzenean edo zeharka hirugarren herrialde bateko gobernuak kontrolatzen badu —organismo publikoak edo indar armatuak barnean direla—; Lehia Defendatzeko Legearen 7.2 artikuluan ezarritako irizpideak aplikatuko dira kontrol hori dagoen zehazteko».

Bost. 7 bis.3 artikuluko c) letra aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Arrisku larria badago atzerriko inbertitzaileak delituzko edo legez kanpoko jarduerak egiteko, baldin eta jarduera horiek Espainiako segurtasun publikoari, ordena publikoari edo osasun publikoari eragiten badiote».

Sei. Beste apartatu bat gehitzen zaio 7 bis artikuluari, 6. apartatua; hona:

«6. Gobernuak erregelamendu bidez ezarri ahalko du zein eragiketakategoriatan eta zein zenbatakoren azpitik egongo diren aurretiazko baimenaren araubidetik salbuetsita atzerriko zuzeneko inbertsioko eragiketak, artikuluko honek babesten dituen ondasun juridikoetan oso eragin txikia izateagatik edo batere eraginik ez izateagatik. Era berean, erregelamenduz zedarritu ahalko da 2. apartatuan zerrendatutako sektoreen definizioa, lege hau aplikatzeari begira.

Industria, Merkataritza eta Turismo ministroak ahalmena izango du behar diren arauak emateko, Gobernuak artikuluko hau garatu eta betearazteko ematen dituen xedapenak behar bezala aplikatu eta betearaz daitezela».

Azken xedapenetako bosgarrena. *Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legea aldatzea.*

Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 36. artikuluko 2. apartatua aldatzen da —aldaketak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak—, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko Zinematografia Enpresen Administrazio Erregistroan erregistratuta dauden ekoizleek, baldin eta film luze zinematografikoen edo ikus-entzunezko lanen atzerriko ekoizpena gauzatzeaz arduratzen badira eta horien bidez serieko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisiko bat prestatzeko modua badago, Espainiako lurraldean egindako gastuengatik apartatu honetan aurreikusitako kenkaria baliatzeko eskubidea izango dute.

Kenkariaren oinarria Espainiako lurraldean egiten diren eta ekoizpenarekin lotura zuzena duten gastu hauek osatuko dute:

1.a Langile sortzaileen gastuak, baldin eta egoitza fiskala Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideren batean badute; gehienez ere 100.000 euro pertsona bakoitzeko.

2.a Industria teknikoak eta beste hornitzaile batzuk erabiltzearen ondoriozko gastuak.

Hau izango da kenkariaren zenbatekoa:

a) Kenkariaren oinarriaren lehenengo milioiaren % 30 eta hortik gorakoaren % 25.

Kenkaria aplikatuko da baldin eta Espainiako lurraldean egindako gastuak gutxienez milioi bat eurokoak badira. Hala ere, animazio-lanen ekoizpenean, gastu horiek gutxienez 200.000 eurokoak izango dira.

Kenkari hori ez da 10 milioi eurotik gorakoa izango ekoizpen bakoitzeko.

Kenkari horren eta enpresa zergadunak jasotako gainerako laguntzen baturak ezingo du gainditu ekoizpen-kostuaren % 50.

b) Kenkariaren oinarriaren % 30, ekoizlea efektu bisualetarako zerbitzuez arduratzen denean eta Espainiako lurraldean egindako gastuak milioi bat eurotik beherakoak direnean.

Kenkari horren zenbatekoak ezingo du gainditu Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan ezarritako zenbatekoa (erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa da).

Apartatu honetan aurreikusitako kenkaria lege honen 39. artikulua 1. apartatuko azken paragrafoan adierazitako mugatik kanpo geratuko da. Alegia, muga hori kalkulatzeko orduan, ez da kontuan hartuko azaldutako kenkaria.

Erregelamendu bidez ezarri ahalko da zein diren kenkaria lortzeko eskubidea baliatu ahal izateko baldintzak eta prozedurak».

Azken xedapenetako seigarrena. *Balore Merkatuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretua aldatzea.*

Bat. Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 28. artikulua 1. apartatuaren a) letra aldatzen da (testu bategin hori urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen), eta honela geratzen da idatzita:

«a) Izendapenari dagokion aldia amaitzeagatik; kasu horretan, bere eginkizunak betetzen jarraituko du, harik eta ordezkoa izendatu arte».

Bi. Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 77. artikulua 3. apartatua aldatzen da (testu bategin hori urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen), eta honela geratzen da idatzita:

«3. Baldin eta negoziazio-sistema aldeaniztun batean bakarrik negoziatzen ari diren akzioen kapitalizazioa mila milioi euro baino handiagoa bada sei hilabetez baino gehiagoz jarraian, entitate jaulkitzaileak merkatu arautu batean negoziatzeko onartzeko eskatu beharko du, bederatzi hilabeteko epean. Negoziatio-sistema aldeaniztuna zuzentzen duen entitateak betebeharrak hori konplizten dela zainduko du.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak finantza- edo inbertsio-izaera hertsia duten sozietateak aurreko betebeharratik salbuesteko baldintzak finkatu ahalko ditu; izaera hori dute, besteak beste, arau hauek bete behar dituzten sozietateak: 35/2003 Legea, azaroaren 4koa, Inbertsio Kolektiboko Erakundeena; 22/2014 Legea, azaroaren 12koa, Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituen, eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea —Inbertsio Kolektiboko Erakundeena— aldatzen duena; edo 11/2009 Legea, urriaren 26koa, Higiezinen merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuak arautzen dituen».

Azken xedapenetako zazpigarrena. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da. 29. artikulua 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak gehienez ere 100.000 milioi euroko abalak eman ahalko ditu, 2021eko ekainaren 30era arte. Aplikatu beharreko baldintzak eta konplitu beharreko betekizunak, abala eskatzeko gehieneko epea barnean dela, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez ezarriko dira, eta ez da beharrezkoa izango gerora araudia garatzea».

Azken xedapenetako zortzigarrena. *23/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea (23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira).*

23/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da (23/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu batzuetako neurriak onartzen baitira), eta aldaketa horrek indarrean jarri zen egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak. Honela geratzen da idatzita:

Bat. 7. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«7. artikulua. *Sozietateen gaineko zergan kenkari handiagoa izatea automobilgintza-industriaren balio-kateko ekoizpen-prozesuen berrikuntza teknologikoren arloko jarduerengatik.*

1. Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legeak berrikuntza teknologikoko jarduerengatik aplikatu daitezkeen kenkaria arautzen du 35. artikulua 2. apartatuan. Bada, kenkari horren esparruan, 2020an edo 2021ean hasten diren zergaldietarako, 2. apartatu horretako c) letran azaltzen den kenkari-portzentajeari 38 portzentaje-puntu gehituko zaizkio 2020ko ekainaren 25etik aurrera hasitako proiektuetan egindako gastuetarako, baldin eta berrikuntza teknologikoko jardueren proiektuak badira eta horien bitartez aurrerapen teknologikoa egiten bada automobilgintza-industriaren balio-katean ekoizpen-prozesu berriak lortzeko bidean, edo garrantzizko hobekuntzak egiten badira lehendik badiren prozesuetan.

2. Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera enpresa txiki edo ertainak diren zergadunek aplikatu ahalko dute gehikuntza hori. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Aurreko paragrafoan aipatutako izaera ez duten zergadunentzat, 1. apartatuan aurreikusitako gehikuntza 3 portzentaje-puntukoa izango da. Zergadunok baldintza hauek bete beharko dituzte kenkaria aplikatu ahal izateko:

a) Enpresa txiki edo ertain batekin modu eraginkorrean elkarlanean aritzea kenkariaren xede diren jardueretan. Modu eraginkorrean elkarlanean aritzea hauxe dela ulertuko da: elkarri lotuta ez dauden bi entitate edo gehiago elkarlanean aritzea ezagutzak edo teknologia trukatzeko, edo baterako helburu bat lortzeko, lanaren banaketan oinarrituta, zeinean aldeek elkarlaneko proiektuaren eremua batera definitzen duten, proiektu hori aplikatzen laguntzen duten eta haren arriskuak eta emaitzak partekatzen dituzten; zilegi da proiektuaren kostu guztiak aldeetako bati edo batzuei egozte eta horrela beste aldeak finantza-arriskuez gabetzea; ez da elkarlantzat joko kontratuean ikertzea, ezta ikerketa-zerbitzuak ematea ere.

b) Zergadunak kolaboratzaile dituen enpresa txiki eta ertainek beren gain hartzea kenkariaren oinarrian sartzen diren proiektuaren gastuen % 30, gutxienez.

Artikulu honetan aurreikusitako gehikuntzari dagokion kenkaria ezingo da izan 7,5 milioi eurotik gorakoa zergadunak garatutako proiektu bakoitzeko. Gainera, aipatutako kenkariaren eta zergadunak jasotako gainerako laguntzen baturak ezingo du gainditu diruz lagundutako proiektuaren kostuaren % 50, edo, zergaduna ez bada enpresa txiki edo ertaina Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean xedatutakoaren arabera, % 15 (erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz).

3. Artikulu honetan aurreikusitako gehikuntza aplikatu ahal izateko:

a) Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. kapituluaren eta 29. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira, kenkariaren oinarriari dagokiona izan ezik (erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria batzuk barne-merkatuarekin bateragarriak direla adierazten da, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz).

b) Aurretik entitateak txosten arrazoitu bat lortu beharko du, jardura kalifikatu ahal izateko berrikuntza teknologiko gisa, zeinaren emaitza baita aurrerapen teknologikoa egitea prozesu berriak lortzeko bidean edo garrantzizko hobekuntzak egitea lehendik badiren prozesuetan, Sozietateen gaineko Zergaren Legeak (azaroaren 27ko 27/2014 Legea) 35. artikuluan 4. apartatuaren a) letran ezartzen duen moduan».

Bi. Azken xedapenetako laugarrena aldatzen da eta honela geratzen da:

«Azken xedapenetako laugarrena. *Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legea aldatzea, ibilgailu elektriko, jasangarri eta konektatuen balio-katean egiten diren inbertsioak amortizatzeko askatasunari dagokionez».*

2020ko apirilaren 2tik 2021eko ekainaren 30era bitartean amaitzen diren zergaldietan egindako inbertsioei dagokienez, hamaseigarren xedapen gehigarria eransten da Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legean, eta honela geratzen da idatzita:

«Hamaseigarren xedapen gehigarria. *Ibilgailu elektriko, jasangarri eta konektatuen balio-katean egiten diren inbertsioak amortizatzeko askatasuna.*

1. Ibilgetu materialaren osagai berriak eskuratzeko inbertsioak egiten direnean, osagai horien bitartez ekoizpen-katea sensorizatzen eta monitorizatzen bada edota fabrikazio-sistema berriak ezartzen badira, moduluko plataformetan oinarrituak edo ingurumen-eragina leuntzen dutenak, betiere automobilgintzaren industria-sektoreari lotuak, 2020ko apirilaren 2tik 2021eko ekainaren 30era bitartean zergadunaren esku jarri eta funtzionatzen hasiak, osagai horiek askatasunez amortizatu ahalko dira 2020ko apirilaren 2tik 2021eko ekainaren 30era bitartean amaitzen diren zergaldietan, baldin eta, eskuratutako osagaiak funtzionatzen hasten diren zergaldiaren lehen egunaren osteko 24 hilabeteetan, entitateak 2019ko batez besteko plantillaren parean eusten badio batez besteko plantilla osoari.

Higiezinak ezingo dira xedapen honetan araututako amortizazio-askatasunera bildu.

Amortizazio-askatasunaren araubidea gehienez ere 500.000 euroko inbertsioari aplikatu ahalko zaio.

Entitatearen batez besteko plantilla osoa kalkulatzeko, enplegatutako pertsonei erreparatuko zaie, lan-arloko legeriak xedatzen duen bezala, kontuan hartuta lanaldi osoaren aldean kontratatutako lanaldia.

2. Xedapen honetan araututako amortizazio-askatasuna aplikatzeko, zergadunek txosten arrazoitua aurkeztu beharko dute, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak egina, zergadunaren inbertsioa egokitzat kalifikatzeko. Txosten hori loteslea izango da zerga-administrazioarentzat.

Osagaia funtzionatzen hasten denetik bi hilabeteko epean eskatu beharko du txostena zergadunak, eta eskabidea jasotzen duenetik bi hilabete igaro baino lehen eman beharko du organo eskudunak. Nolanahi ere, 2020ko apirilaren 2tik azaroaren 18ra bitartean funtzionatzen hasi diren osagaietan egindako inbertsioetarako, txosten hori 2021eko urtarrilaren 18ra arte eskatu ahalko da.

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak apartatu honetan aipatzen diren txosten arrazoituak emateko prozedura azaroaren 21eko 1432/2003 Errege Dekretuaren bidez arautuko da, aplikatzekoa zaion eta xedapen honetan ezarritakoaren aurkakoa ez den heinean. Errege-dekretu horrek arautzen du nola eman behar dituen Zientzia eta Teknologia Ministerioak baldintza zientifiko eta teknologikoak betetzeari buruzko txosten arrazoituak, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardueren ondorioz kenkari fiskalak aplikatu eta interpretatzeko.

Baldin eta sozietateen gaineko zergaren aitortpena aurkezten den unean Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, zergadunari egotzi ezin zaizkion arrazoiak tarteko, oraindik ez badu eman apartatu honetan aipatutako txostena, zergadunak behin-behinean aplikatu ahalko du xedapen honetan aurreikusitako amortizazio-askatasuna, baldin eta txosten hori arestian adierazitako epearen barruan eskatu badu. Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak inbertsioa egokitzat jotzen ez badu, zergadunak, txostena jakinarazten den zergaldiko kuotarekin batera, aplikatutako gehiegizko kenkariari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, berandutze-interesak gehituta.

3. Plantilla mantendu beharra (xedapen honen 1. apartatuan ezartzen denaren arabera) betetzen ez bada, gehiegiko kenkariari dagokion kuota osoa eta bidezko berandutze-interesak ordaindu beharko dira. Kuota osoarekin eta berandutze-interesekin batera, betebeharra konplitu ez den zergaldiari dagokion autolikidazioa ordaindu beharko da.

4. Entitate batek, lege honen 101. artikuluan ezarritakoaren arabera, enpresa txikientzako zerga-pizgarriak baliatu ahal baditu lege honen VII. tituluko XI. kapituluaren aurreikusi bezala, entitate horrek aukeratu ahalko du edo lege honen 102. artikuluan aurreikusitako amortizazio-askatasunaren araubidea aplikatzea edo xedapen honetan araututako amortizazio-askatasunaren araubidea aplikatzea.

5. Neurri hori COVID-19aren egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko laguntza-neurrien Aldi Baterako Esparru Nazionalaren babespean dago, Europako Batzordeak erabaki hauek hartu ondoren: SA.56851 (2020/N), 2020ko apirilaren 2koa; SA.57019 (2020/N), 2020ko apirilaren 24koa; eta SA.58778 (2020/N), 2020ko urriaren 22koa».

Azken xedapenetako bederatzigarrena. *Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Ekonomiaren suspertzea eta enplegua bultzatzeko premiazko neurrien uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 1. artikulua 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Herrialdearen suspertze ekonomikoa sustatze aldera, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak abalak emango ditu, finantza-entitate gainbegiratuak finantzaketa eman diezaieten enpresa eta autonomoei, inbertsio berriek sortzen dizkieten finantza-beharrizanak asetzeko, batez ere. Abal horiek Errenta Finkoko Merkatu Alternatiboko (MARF) ordaindukoei ere aplikatu ahalko zaizkie».

Bi. 1. artikulua 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak gehienez ere 40.000 milioi euroko abalak eman ahalko ditu, 2021eko ekainaren 30era arte. Aplikatu beharreko baldintzak eta konplitu beharreko betekizunak, abala eskatzeko gehieneko epea barnean dela, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez ezarriko dira, eta ez da beharrezkoa izango gerora araudia garatzea».

Azken xedapenetako hamargarrena. *Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalen eta antolaketa-neurrien irailaren 18ko 3/2020 Legea aldatzea.*

Bat. Justizia Administrazioaren esparruan COVID-19ari aurre egiteko neurri prozesalen eta antolaketa-neurrien irailaren 18ko 3/2020 Legearen 3. artikuluan, 2. apartatua aldatzen da, bi apartatu berri gehitzen dira —3. eta 4. apartatuak—, eta 3. apartatua 5. apartatu bihurtzen da, zenbakia aldatuta. Honela geratzen da idatzita:

«2. Hartzekodunek hitzarmena ez dela bete deklaratu dadin 2020ko urriaren 31ra arte aurkezten dituzten eskabideak konkurtsopekoari helaraziko dizkio epaileak, baina egun horretatik hiru hilabete igaro arte ez ditu izapidetzeko onartuko. Hiru hilabete horietan, konkurtsopekoak hitzarmena aldatzeko proposamena aurkeztu ahalko du, eta ez-betetzea deklaratzeko eskabidea baino lehen izapidetuko da.

3. Era berean, epaileak konkurtsopekoari helaraziko dizkio hartzekodunek hitzarmena ez dela bete deklaratu dadin 2020ko urriaren 31tik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartean aurkezten dituzten eskabideak, baina azken egun horretatik hiru hilabete igaro arte ez ditu izapidetzeko onartuko. Hiru hilabete horietan, konkurtsopekoak hitzarmena aldatzeko proposamena aurkeztu ahalko du, eta ez-betetzea deklaratzeko eskabidea baino lehen izapidetuko da.

4. Baldin eta 2020ko urriaren 31tik errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunera bitartean hartzekodunek hitzarmena ez dela bete deklaratzeko eskabideren bat aurkeztu badute eta izapidetzeko onartu bazaie, eten egingo da prozeduraren tramitazioa, hiru hilabetez, etete-egunetik hasita. Hiru hilabete horietan konkurtsopekoak hitzarmena aldatzeko proposamena aurkezten badu, epaileak artxibatu egingo du ez-betetzea deklaratzeko eskabidearen prozedura, izapidetzeko onartuta egon arren, eta lehentasunez izapidetuko du hitzarmena aldatzeko proposamena».

Bi. 5. artikuluan, 2. apartatua aldatzen da, eta beste paragrafo bat gehitzen da. Honela geratzen da idatzita:

«2. Hartzekodunek birfinantzaketa-akordioa ez dela bete deklaratu dadin 2020ko urriaren 31ra arte aurkezten dituzten eskabideak zordunari helaraziko dizkio epaileak, baina egun horretatik hilabete igaro arte ez ditu izapidetzeko onartuko. Hilabete horretan, zordunak konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi ahalko dio hartzekodunekin negoziatzeari ekin diola edo ekin nahi diola indarrean dagoen akordio homologatua aldatzeko edo beste bat egiteko, nahiz eta oraindik urtebete ez izan aurreko homologazio-eskaera egin zenetik. Epaitegiari aurrekoa jakinarazi eta hiru hilabetera zordunak ez badu adostasunik lortu indarreko akordioa aldatzeko edo beste bat egiteko, epaileak izapidetzeko onartuko ditu hartzekodunek ez-betetzea deklaratu dadin aurkeztu dituzten eskabideak.

Era berean, epaileak zordunari helaraziko dizkio hartzekodunek hitzarmena ez dela bete deklaratu dadin 2020ko urriaren 31tik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartean aurkezten dituzten eskabideak, baina azken egun horretatik hilabete igaro arte ez ditu izapidetzeko onartuko. Hilabete horretan, zordunak konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari jakinarazi ahalko dio hartzekodunekin negoziatzeari ekin diola edo ekin nahi diola indarrean dagoen akordio homologatua aldatzeko edo

beste bat egiteko, nahiz eta oraindik urtebete ez izan aurreko homologazio-eskaera egin zenetik. Epaitegiari aurrekoa jakinarazi eta hiru hilabetera zordunak ez badu adostasunik lortu indarreko akordioa aldatzeko edo beste bat egiteko, epaileak izapidetzeko onartuko ditu hartzekodunek ez-betetzea deklaratu dadin aurkeztu dituzten eskabideak».

Hiru. 6. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«6. artikulua. *Hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskabideen araubide berezia.*

1. 2021eko martxoaren 14ra arte, egun hori barne, kaudimenik gabeko zordunek ez dute konkurtso-deklarazioa eskatu beharrik izango, berdin dio epaitegi eskudunari jakinarazi dioten edo ez hartzekodunekin negoziatzen hasi direla birfinantzaketa-akordioa lortzeko, ordainketa-akordio estrajudiziala lortzeko edo aurretiazko hitzarmen-proposamenarekiko atxikipenak lortzeko.

2. 2021eko martxoaren 14ra arte, egun hori barne, epaileek ez dituzte izapidetzeko onartuko nahitaezko konkurtsoa deklaratzeko 2020ko martxoaren 14tik aurrera aurkeztutako eskabideak. 2021eko martxoaren 14ra arte, egun hori barne, zordunak borondatezko konkurtsoa eskatua badu, eskabide hori lehentasunez onartuko da izapidetzeko, nahitaezko konkurtsoaren eskabideak baino geroagoko data eduki arren».

Azken xedapenetako hamaikagarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 1., 6., 8., 10., 11., 13., 14., 23. eta 25. zenbakietan xedatutakoaren babesean ematen da. Zenbaki horietan, Konstituzioak Espainiako estatuari esleitzen dio honako gai hauen gaineko eskumen eskusiboa, hurrenez hurren: oinarritzko baldintzak arautzea bermatzeko espainiar guztiak berdinak izango direla konstituzio-eskubideak egikaritzeari eta konstituzio-eginbeharrak betetzeari dagokionez; merkataritzako legeria, prozedura-legeria eta legeria zibila; aduanen eta arantzelen araubidea; kanpo-merkataritza; kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeako oinarriak; jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa; herri-ogasuna; ingurumena babesteko oinarritzko legeria (hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek, oinarritzko legeria horren gehigarri, babes-arauak emateko dituzten ahalmenak); eta meatze- eta energia-araubidearen oinarriak.

Azken xedapenetako hamabigarrena. *Europar Batasuneko Zuzenbideko arauak txertatzea.*

Errege lege-dekretu honen bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 2019/692 Zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzeko prozedura burutzen da (zuzentarau horrek aldatu egiten du 2009/73/EE Zuzentaraua, Batasunaren barruko gas naturalaren merkatuaren baterako arauak buruzkoa).

Azken xedapenetako hamahirugarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta arauak emateko gaikuntza.*

Gobernuari ahalmena ematen zaio errege lege-dekretu honetan ezartzen dena garatzeko, aplikatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak onar ditzan.

Azken xedapenetako hamalagarrena. *Indarrear jartzea.*

Errege lege-dekretu hau, 6. artikuluan xedatutakoa izan ezik, *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrear.

Madrilen, 2020ko azaroaren 17an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN

ERANSKINA

6. artikulua aipatzen dituen ondasunen zerrenda

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NK kodea
1	Osasun-produktuak.	Zainketa intentsiboetarako eta azpi-intentsiboetarako arnasmakailuak.	ex 9019 20 00
		Haizagailuak (arnasketa artifizialerako tresnak). Fluxu bereizleak.	ex 9019 20 00 ex 9019 20
		Oxigenoterapiarako beste tresna batzuk, oxigeno-dendak barne.	ex 9019 20 00
		Gorputzaz kanpoko mintz bidezko oxigenazioa.	ex 9019 20 00
2	Monitoreak.	Parametro anitzeko monitoreak, eramangarriak barne.	ex 8528 52 91
			ex 8528 52 99
			ex 8528 59 00
			ex 8528 52 10
3	Ponpak.	<ul style="list-style-type: none"> – Kanpo-nutriziorako ponpa peristaltikoak. – Sendagaien infusio-ponpak. – Xurgapen-ponpak. 	ex 9018 90 50
			ex 9018 90 84
			ex 8413 81 00
		Xurgatze-zundak.	ex 9018 90 50
4	Hodiak.	Hodi endotrakealak.	ex 9018 90 60
		Hodi esterilak.	ex 9019 20 00
5	Kaskoak.	CPAP/NIV aireztapen mekaniko ez-inbaditzaileko kaskoak.	ex 3917 21 10
			– ex 3917 39 00
6	Aireztapen ez-inbaditzaileko maskarak (NIV).	Aireztapen ez-inbaditzaileko aurpegi osoko maskarak eta maskara orononasalak.	ex 9019 20 00
7	Xurgapen-sistemak/makinak.	Xurgapen-sistemak.	ex 9019 20 00
		Xurgapen-elektrikoko makinak.	ex 9019 20 00 ex 8543 70 90
8	Hezegailuak.	Hezegailuak.	ex 8415
			ex 8509 80 00
			ex 8479 89 97
9	Laringoskopiaok.	Laringoskopiaok.	ex 9018 90 20
10	Hornigai mediko suntsikorrak.	<ul style="list-style-type: none"> – Intubazio-kitak. – Guraize laparoskopikoak. 	ex 9018 90
		Xiringak, orratzarekin edo gabe.	ex 9018 31
		Metalezko orratz tubularrak eta josturetarako orratzak.	ex 9018 32
		Orratzak, kateterrak eta kanulak.	ex 9018 39
		Sarbide baskularrerako kitak.	ex 9018 90 84

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NK kodea
11	Monitorizazio estazioak - Pazienteak monitorizatzeko tresnak - Elektrodiagnostikorako tresnak.	Zainketa intentsiboetarako monitorizazio-estazio zentralak. Pultsu-oximetroak.	ex 9018 90 ex 9018 19
		– Pazienteak monitorizatzeko gailuak. – Elektrodiagnostikorako tresnak.	ex 9018 19 10 ex 9018 19 90
12	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	Ultrasoinu bidezko eskaner eramangarria.	ex 9018 12 00
13	Elektrokardiografoak.	Elektrokardiografoak.	ex 9018 11 00
14	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak/ eskanerrak.	Ordenagailu bidezko tomografiarako sistemak.	ex 9022 12, ex 9022 14 00
15	Maskarak.	– Aurpegirako ehun-maskarak, iragazki ordezkagarriak eta pieza mekanikorekin gabe, horren barnean direla ehundu gabeko ehun-materialarekin egindako maskara kirurgikoak eta erabili eta botatzeko aurpegiko maskarak. – Aurpegiko maskarak, FFP2 eta FFP3 motakoak.	ex 6307 90 10 ex 6307 90 98
		Paperezko maskara kirurgikoak.	ex 4818 90 10 ex 4818 90 90
		Gas-maskarak, agente biologikoen aurka babesteko pieza mekanikoak edo iragazki ordezkagarriak dituztenak. Begi-babesa edo aurpegiko ezkutak dituzten maskarak barne.	ex 9020 00 00
16	Eskularruak.	Plastikozko eskularruak.	ex 3926 20 00
		Gomazko eskularru kirurgikoak.	4015 11 00
		Gomazko beste eskularru batzuk.	ex 4015 19 00
		Puntuzko eskularruak, plastikoz edo gomaz estaliak edo inpregnatuak.	ex 6116 10
		Puntuzkoak ez diren ehunezko eskularruak.	ex 6216 00
17	Aurpegi-babesgarriak.	– Erabili eta botatzeko aurpegi-babesgarriak eta aurpegi-babesgarri berrerabilgarriak. – Aurpegi-babesgarriak, plastikozkoak (begiena baino azalera handiagoa estaltzen dutenak).	ex 3926 20 00 ex 3926 90 97
18	Betaurrekoak.	Babeserako betaurreko handiak eta txikiak (googleak).	ex 9004 90 10 ex 9004 90 90

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NK kodea
19	Osoko jantziak. Mantal iragazgaitzak, hainbat mota eta neurritakoak. Erabilera kirurgiko/medikorako babes-jantziak, ehundu gabeko feltroz edo ehunez eginak, baita inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak ere (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak).	Erabilera anitzeko arropa (barne daudela eskularruak, mitoiak eta eskuzorroak), goma bulkanizatuzkoa.	ex 4015 90 00
		Jantziak.	ex 3926 20 00
		Arropa eta osagarriak.	ex 4818 50 00
		5903, 5906 edo 5907 partidetako puntuzko ehunekin egindako jantziak.	ex 6113 00 10 ex 6113 00 90
		Kaltzetazko ehuna duten beste jantzi batzuk.	6114
		Erabilera kirurgikorako/medikorako babes-jantziak, ehundu gabeko feltroz edo ehunez eginak, inpregnatuak edo inpregnatu gabeak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak (56.02 edo 56.03 partidetako ehunak). Ehundu gabeko materialez egindako jantziak («spun-bonded») barne.	ex 6210 10
		Beste babes-jantzi batzuk, kautxuztatutako edo inpregnatutako, estalitako, gaineztatutako edo ijestutako ehunez eginak (59.03, 59.06 edo 59.07. partidetako ehunak).	ex 6210 20 ex 6210 30 ex 6210 40 ex 6210 50
20	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	Oinetakoen estalkiak/galtzak.	ex 3926 90 97
			ex 4818 90
			ex 6307 90 98
21	Txanoak.	Txano puntadunak.	ex 6505 00 30
		Txanoak eta bururako beste babesgarri batzuk, eta edozein materialezko sareak.	ex 6505 00 90
		Gainerako txanoak eta bururako babesgarriak, forratuta/neurrikoak edo ez.	ex 6506
22	Termometroak.	Zuzeneko irakurketarako likidodun termometroak.	ex 9025 11 20
		Termometro digitalak edo termometro infragorriak, tenperatura kopetan neurtzeko.	ex 9025 19 00
23	Eskuak garbitzeko xaboa.	Eskuak garbitzeko xaboa eta prestatutako produktu organiko tentsioaktiboak (apain-mahaiko xaboa).	ex 3401 11 00 ex 3401 19 00
		Xaboa eta produktu organiko tentsioaktiboak Xaboa beste forma batzuetan.	ex 3401 20 10 ex 3401 20 90
		Agente organiko tentsioaktiboak (xaboiaz bestelakoak) – Katioi-agenteak.	ex 3402 12
		Azala garbitzeko produktu eta prestakin organiko tentsioaktiboak, likido edo krema itxurakoak eta txikizkako salmentarako prestatuak, xaboa dutenak edo ez.	ex 3401 30 00
24	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	Eskuen desinfektatzailearen banagailuak, paretan jartzekoak.	ex 8479 89 97

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NK kodea
25	Disoluzio hidroalkoholikoa litrotan.	2207 10: desnaturalizatu gabe, % 80ko alkohol etilikoko bolumena edo gehiago dutenak.	ex 2207 10 00
		2207 20: desnaturalizata, kontzentrazioa edozein dela ere.	ex 2207 20 00
		2208 90: desnaturalizatu gabe, alkohol etilikoa bolumenaren % 80 baino gutxiago denean.	ex 2208 90 91 ex 2208 90 99
26	Hidrogeno peroxidoa % 3an, litrotan. Hidrogeno peroxidoa, prestakin desinfektatzaileetan gaineratua gainazalak garbitzeko.	Hidrogeno peroxidoa, urearekin solidotua edo ez.	ex 2847 00 00
		Hidrogeno peroxidoa soltean.	
		Eskuen desinfektatzailea.	ex 3808 94
		Beste prestakin desinfektatzaile batzuk.	
27	Larrialdietako garraiagailuak.	Desgaitasuna duten pertsonentzako garraioa (gurpil-aulkiak).	ex 8713
		Ospitaleetan edo kliniketan pazienteak eramateko ohatilak eta orgatxoak.	ex 9402 90 00
28	ARN erauzgailuak.	ARN erauzgailuak.	9027 80
29	COVID-19aren proba-kitak / Proba diagnostikoetan erabiltako tresnak eta gailuak.	– Koronabirusaren proba diagnostikorako kitak. – Immunologia-erreakzioetan oinarritutako diagnostiko-erreaktiboak. – Ekipoa: isipiak eta birusa garraiatzeko ingurunea.	ex 3002 13 00 ex 3002 14 00 ex 3002 15 00 ex 3002 90 90 ex 3821 00
		Diagnostiko-erreaktiboak, polimerasaren kate-erreakzioan oinarrituta (PCR), azido nukleikoaren proba.	ex 3822 00 00
		Laborategi klinikoetan in vitro diagnostikorako erabiltzen den tresneria.	ex 9027 80 80
		Laginetarako kitak.	ex 9018 90 ex 9027 80
30	Isipiak.	Guata, gaza, bendak, kotoi-txotxak eta antzeko artikulak.	ex 3005 90 10
			ex 3005 90 99
31	Kanpaina-ospitaleak instalatzeko materiala.	Ospitaleetako oheak.	ex 9402 90 00
		Karpak/kanpadendak.	ex 6306 22 00, ex 6306 29 00
		Karpak/plastikozko kanpadendak.	ex 3926 90 97
32	Botikak.	– Remdesivir. – Dexametasona.	ex 2934 99 90 ex 2937 22 00 ex 3003 39 00 ex 3003 90 00 ex 3004 32 00 ex 3004 90 00
33	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	Esterilizatzaile medikoak, kirurgikoak edo laborategikoak.	ex 8419 20 00 ex 8419 90 15
34	1 - propanola (alkohol propilikoa) eta 2 - propanola (alkohol isopropilikoa).	1 - propanola (alkohol propilikoa) eta 2 - propanola (alkohol isopropilikoa).	ex 2905 12 00

	Produktuaren izena	Ondasunaren edo produktuaren deskribapena	NK kodea
35	Eterrak, eter-alkoholak, eter-fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	Eterrak, eter-alkoholak, eter-fenolak, eter-alkohol-fenolak, alkohol peroxidoak, beste peroxido batzuk, zetona peroxidoak.	ex 2909
36	Azido formikoa.	Azido formikoa (eta gatz eratorriak).	ex 2915 11 00 ex 2915 12 00
37	Azido salizilikoa.	Azido salizilikoa eta gatz eratorriak.	ex 2918 21 00
38	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen direnen motakoak.	Erabilera bakarreko oihalak, 5603. partidako ehunez eginak, prozedura kirurgikoetan erabiltzen direnen motakoak.	6307 90 92
39	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak izan edo ez.	Ehundu gabeko oihalak, inpregnatuak, estaliak, gaineztatuak edo ijestuak izan edo ez.	ex 5603 11 10 - ex 5603 94 90
40	Erabilera kirurgikoko, medikoko edo higienikoko artikulua, txikizkako salmentarako ez direnak.	Paperezko ohe-estalkiak.	ex 4818 90
41	Laborategiko beirateria, beirateria higienikoa edo farmazeutikoa.	Laborategiko beirateria, beirateria higienikoa edo farmazeutikoa, kalibratuta edo graduatuta egon zein ez egon.	ex 7017 10 00 ex 7017 20 00 ex 7017 90 00
42	Fluximetroa, Thorpe hodiko fluxu-neurgailua oxigenoa emateko, 0-15 L/min.	Thorpe hodiko fluxu-neurgailuak osagai hauek dauzka: sarrera- eta irteera-atakak, erregulagailua, balbula eta neurketa-hodi koniko gardena. Hainbat gas medikoren iturriekin konektatzeko balio du, hala nola sistema zentralizatu batekin, zilindroekin (bonbonak), kontzentragailuekin edo konpresoreekin. Fluximetro (fluxu-neurgailu) arruntaren bertsioak (absolutua, konpentsatu gabea) eta presio konpentsatukoa, fluxu-maila espezifikotarako egokiak.	ex 9026 80 20 ex 9026 80 80 ex 9026 10 21 ex 9026 10 81
43	CO2aren detektagailu kolorimetrikoa, arnasa botatzekoa.	Haurren eta helduen hodi endotrakealarekin bateragarria den tamaina. Behin bakarrik erabiltzekoa.	ex 9027 80
44	X izpien filma edo plakak.	Laua, sentsibilizatua eta inpresionatu gabea. Biribilkietan. Sentsibilizatua eta inpresionatu gabea.	ex 3701 10 00 ex 3702 10 00